

hh
hik hasi

J. Iñaki Etxezarretari elkarrizketa
COVID-19 eta ikasleen arteko elkar-zaintza
Garapen Jasangarriaren Helburuak eta
Agenda 2030
Adimen-gaitasun handiak eta emakumeak
Zertarako behar dugu STEM hezkuntza?
Aretz Inguiz

9
4
2



TEKNOLOGIA DIGITALAK



Begiak ZERUMUGAN

MIREN AGUR MEABE
ANE PIKAZA



HORMA-IRUDIA
BARRUAN

Haurtzaroko paisaiak sentimendu bihurtzen dira
poema-liburu honetan.

elkar www.elkarargitaletxea.eus

AURKIBIDEA

GAIA / 10

TEKNOLOGIA DIGITALAK PEDAGOGIAREN ZERBITZURA

Eskolak itxita egoteak online irakaskuntzara pasatzea ekarri du eta teknologia digitaletan adituak bilakatu dira irakasle eta ikasle asko. Horrek ez du esan nahi, hala ere, konpetentzia digitalak dituztenik, gauza bat tresnak erabiltzea delako eta beste bat gaitasun digitalak edukitzea. Amaia Arroyo Sagasta HUHEZIlko irakasleak sakontzen du gaien.

ELKARRIZKETA / 14

J. IÑAKI ETXEZARRETA

Euskal hezkuntzan eta ikastolen mugimenduan murgilduta pasa du bizitza osoa. Urretxu-Zumarragako Ikastolan hasi eta Arizmendi Ikastolan bukatuko du, tartean Ikastolen Elkartearen urte askotan aritu ondoren. Zuzendaritza karguak bete ditu ibili den erakundeetan eta horrek emandako ikuspegitik eta eskarmentutik mintzo da. Erronkaz erronka pasako urteei errematea emateko beste erronka bati helduta dabil.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPIZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Mikel Agirrezabala, Ainhoa Azpirozt eta Ainara Gorostitzu.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2020-05-28).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Eralda daiteke, eralda dezakegu

10 GAI NAGUSIA

Teknologia digitalak pedagogiaren zerbitzura

14 ELKARRIZKETA

J. IÑAKI ETXEZARRETA

“Hezkuntzaren funtzio inportanteenetako bat humanismo aktiboa lantzea da, horrek eramaten gaitu eraldaketara”

24 ESPERIENTZIAK

Kideen emozioen ardura hartzea ere lankidetzara delako

26 EKARPENAK 1

Konsue Salinas: “Koronabirusaren krisiagatik sortutako egoera berriak lantzeko materiala prestatu dugu”

31 EKARPENAK 2

Adimen-gaitasun handiak eta emakumeak

36 GALDEIDAZU

ZiTeO IKERKETA-TALDEA Zertarako behar dugu STEM hezkuntza?

39 ARGITALPENAK


40 PROPOSAMENA

Meatzaldea-Peñas Negras ekoetxea

42 ATZEKO ATETIK

Aretz Inguiz

Udaldi berezi bat



EMAU

Eralda daiteke, eralda dezakegu

editoriala

BELDUR GAITZAKETE, KONTROLA GAITZAKETE, MANIPULA GAITZAKETE, BAINA INOIZ EZ BARRU-BARRUKO ERREBELDIARI UKO EGITERA ARTE. BERAZ, BALIA DEZAGUN KRISIA ESKOLA ETA HEZKUNTZA HOBETZEKO.



Martxoan konfinamendua, eskolak ixtea eta online-irakaskuntza etorri zitzaizkigun gainera bat-batean, eskatu gabe, planifikatu gabe, aurrekusi gabe. Orain, ekainean, ikasturteari bukaera emateko garaia iritsi denean, ziurgabetasunak jarraitzen du, eta bi galdera handi dabilta airean: nola bukatuko dugu ikasturtea eta nola hasiko gara irailean? A, B, C... eta Z planak ari dira mahaigaineratzen ikastetxeetan; aurrez aurreko aukerarekin batera telematikoa edota mistoa aurreikusten dira; paperean idatzitako curriculumari bizitzea egokitu zaigun errealtatea gainezarri zaio; maskarek eta distantziek nahi ditugun harremanak eta kontaktua eragozten dituzte; ideia sortzaileei eta planteamendu berriei hegoak mozten dizkiete administrazioen aginduek eta arauak; eta zurrumbilo horren barrutik, tarteka edo sarritan, norberaren arabera, beldurra agertzen da, COVID-19ak mundu osoko biztanleen artean sorrarazi duen beldur hori. Eta beldur horrek blokeatu eta geldiarazi egin gaitzake.

Iñaki Etxezarreta Arizmendi Ikastolako zuzendari orokorrak zenbaki honetako elkarrizketa nagusian dioen bezala, ordea, “gizakiok ez diogu inoiz uko egiten barruan daramagun errebeldia horri. Eta testuinguru batean edo bestean, beti ateratzen zaigu”. Horregatik azpimarratzen du geure buruak desaktibatu behar ditugula ezuste, ziurgabetasun eta beldur

horietatik. “Konfiantza landu beharrean gaude, berriro ere. Bestela, bloketatuta gaude eta ez gara kapaz pentsatzeko, ez gara kapaz sortzeko eta ez gara kapaz momentu honetan beste egoera bat irudikatzen.”.

Barruko errebeldia hori ateratzeko unea da orain eta elkarren artean errazagoa izango da. Hik Hasi Laborategian eta beste hainbat lekutan landu diren planteamenduak eta balioak martxan jartzen saiatzeko unea da. Egoera honek aukerak eta abaguneak eskaintzen ditu, beraz, balia ditzagun. Harremanei, egoera emozionalari, kontaktuari edota errealtateko bizipenei garrantzia ematen baldin badiegu, horiek lantzeko bideak hartu behar dira, arau zurrunek markatzen dituztenetara mugatu gabe.

Eraldatzeko unea da. Eralda daiteke eta eralda dezakegu. Bakoitzak bere etxean bide hori har dezake komunitate osoak bat eginik. Baina horrez gain, eragile guztiak batu eta administrazioei bide hori erraztu dezaten eskatzeko momentua da. Denok gara protagonista, denok gaude krisiak ekarri duen ziurgabetasun egoeran, denok gaude gauzak ahalik eta ondoen egiteko borondatearekin, eta lau begik bik baino gehiago ikusten dute. Ikuspegi horiek denak bildu eta horiei entzun behar diete administrazioek, hezkuntza eragileak bidelagun dituztela jabetu behar dute behingoz, eta mugatzeaz haratago, egiten utzi.

“Matrikulazio kopuruak ez dira jaitsi eredu euskaldunetan. Badago, bai, atxikimenduaren antzeko zer edo zer, lilura edo leialtasun efektu bat, euskarak sortua gurasoetan belaunaldiz belaunaldi”

Koldo Izagirre



ZAINZA, NATURA, EMOZIOAK ETA TEKNOLOGIA DIGITALEN ERABILERA GIZATIARRA, KRISI ONDORENGO ESKOLAREN ARDATZ GARRANTZITSUAK

Koronabirusaren larrialdi egoerak hezkuntzan eragin duen krisiari urgentziaz erantzuteko Hik Hasi Laborategia abiatu zuen egitasmo pedagogiko honek maiatzean, aldaketa eskola hobetzeko baliatzeko. Hiru mintegitan hainbat gai aztertu dira: lehenengoan balioak hezkuntzaren ardatz izan dira; bigarren mintegian baliabideak eta metodologiak aztertu dira eta hirugarren mintegia familia eta eskola binomioaren inguruan ardatz da, eta oraindik martxan da.



Ekainaren 4tik 25era bitartean, hirugarren mintegian, emozioek, pedagogia sistemikoak eta helduaren rola krisi osteko eskolari egin diezaioketen ekarpena izango dira aztergai Hik Hasi Laborategian. Alvaro Beñaran psikomotrizista eta ASEFOP elkarteko lehendakariak abiatu zuen hirugarren mintegia, *Helduaren rola inoiz baino garrantzitsuagoa denean* ikastaroarekin. Beste bi ikastaroak martxan dira oraindik: Aitziber Esnaola eta Larraitz Mendizabal Pedagogia Sistemikoko formatzaileek *Familia eta eskola berkokatzen* ikastaroa emango dute eta Nerea Mendizabalek gidaturiko ikastaroan *Emozioak kontuan izango dituen eskola eta etxea* izango dira hizpide.

Laborategitik pasatu dira, baita ere, Nora Salbotx Amaiurko herri-eskolako zuzendari eta maistra; Ane Ablanedo pedagogia berritzaileetan aditua den irakaslea; Heike Freire pedagogia berdeetan formatzailea; Amaia Arroyo Sagasta HUHEZIKO irakasle eta ikertzailea, Joxe Amiama EHUko irakaslea eta Irene Lopez-Goñi Nafarroako Ikastolen Elkarteko pedagogia arduraduna.

Besteak beste, honelako adierazpenak entzun ditugu ikastaroetako zuzenekoetan:

- Joxe Amiamak, etxerako lanen inguruko ikastaroan esana: "Familia lupa emozional bat da. Seme-alabak kontentu ikusten badituzte, familiak inplikatu egiten dira".

- Amaia Arroyo Sagasta, teknologia digitalen inguruan: "Orain inoiz baino gehiago etikoki jokatu behar dugu online-testuinguruan".

- Ane Ablanedo, askatasunaz hausnartzen: "COVID-19ak azaleratu egin du eskola zenbateraino dagoen krisian. Beraz, irudikatzen hasi behar dugu eskola berri bat, guztiz desberdina".

- Nora Salbotx, zaintza hezitzailearen inguruan: "Eskola ere ezagutza komuna bat da". "Ezagutza modu kolaboratiboan eraiki behar da".

ESKOLETAKO JAIK BERTAN BEHERA UTZI, ATZERATU EDO EGOKITU EGIN DIRA

COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz ikasturte honetako jaiak atzeratu, bertan behera utzi edota egokitu egin dira, Euskal Herriko gainerako jai eta ospakizun jendetsuak bezala. Horrela, Herri Urrats irailaren 20an ospatuko da Senperen. Kilometroak jaiak bere data mantenduko du, urriaren 4an, Amasa-Villabonan eta Zizurkilen. Araba Euskaraz eta Ibilaldia, berriz, egun berean ospatuko dituzte, urriaren 18an, Amurrión eta Elorrión, hurrenez hurren. Egund berean egitekoa ziren Nafarroa Oinez ere, baina bertan behera utzi behar izan dute aurtengo jaiak beraz antolatzeke baldintzarik ez dagoelako eta datorren urtera atzeratu dute.

Aizarnan egitekoak ziren Gipuzkoako Eskola Txikien festarekin ere gauza bera erabaki dute, urtebete atzeratzea jaiak.

Euskal Eskola Publikoak, bestalde, jai birtualarekin ordezkatu du urteroko festa eta ekainaren 7tik 12 bitartean EHIGEko youtubeko kanalean jarraitu ahal izan dira.

Sortzenek antolatzen duen Euskal Eskola Publiko Berriaren aldeko jaiak atzeratu egin dute eta oraindik data jartzeko daukate.



HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

IKASTURTE AMAIERA NAHASIA IZATEN ARI DA ETA HURRENGOAREN HASIERARAKO ERE EZ DAGO EZER ZIURRIK



Martxotik ekainerako hilabete hauetan ikastetxeak itxita egon dira COVID-19a dela-eta. Lehendabizi konfinamendua ezarri zen eta ondoren deseskalatze fase gorabeheratsuak eta nahasiak iritsi dira.

Herralde bakoitzean egoera desberdina bizi izan da: ikastetxe batetik bestera gauzak aldatzen dira, administrazioen pautak eta neurriak ere aldatuz doaz eta egun batean balio duenak biharamunean ez du balio. Ziurgabetasuna da nagusi. Maiatza horrela joan da.

Iparraldean hasi ziren eskolak irekitzen aurrena, maiatzaren 13an, eta haur txikiak itzuli ziren geletara egun horietan. Haien atzetik bueltatu ziren kolegioetakoak, maiatzaren 18an. Haatik, irakasleak ez zeuden ziur Frantziako Hezkuntza Nazionalak hartutako erabakiekin, zalantzak zituzten osasun neurriak bermatu ote zitezkeen eta hartutako distantziako neurri zorrotzak egokiak ote ziren. Gauza bera gertatu zen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ikastetxeak maiatzaren 18an irekiko zirela esandakoan. Irakasleek eta zuzendariak ez zituzten osasuna bermatzeko baldintzak ikusten eta sindikatuek planto egiteko deia egin zuten, eta maiatzaren 14an Bilboko Eusko Jaurlaritzaren egoitzaren aurrean mobilizatu ziren. EHIGE guraso elkarteak ere ez zuen begi onez ikusi maiatzaren 18an itzultzea. Azkenean, hasierako data atzeratu eta maiatzaren 25ean ezarri zen itzulera eguna. Baina hori ere ez ikasle guztientzat, DBH 4. mailako, Batxilergoko 2. mailako eta Lanbide Heziketako ikasleentzat baizik.

Nafarroan lasaiago ibili dira, hainbeste aldaketa egin gabe. Maiatzean ez, baizik eta ekainean hasi dira ikasleak eskolara bueltatzen, eta bereziki Batxilergoko 2. mailako ikasleak, lehentasuna horiei emanez selektibitatea egin behar dutelako. Oro har, ikasturte amaiera ez da modu orokorrean eta zentro guztietan berdin izaten ari. Ikastetxe batetik bestera eta etapa batetik bestera egoera aldatu egiten da, bai ikasleena eta baita irakasleena ere. Irailera begira ere aurreikuspen ziurrik ez da ikusten. Hezkuntza Sailak zein Nafarroako Hezkuntza Departamenduak esan dute irailean ohiko moduan hastea aurrizuten dutela, baina hainbat ikastetxe beste egoerarako ere ari dira prestatzen.

SELEKTIBITATEA EGINGO DA

Nafarroan ekainaren 23tik 26ra egingo da selektibitatea, aurreko urteetan baino egun bat gehiagon. Probari egun bat gehitu diote ikasleak "lasai" joan daitezten eta proben artean etxera itzultzeko aukera izan dezaten. Nafarroako Unibertsitate Publikoak deitzen duen proba unibertsitateko campusetan ez ezik, Iruñeko eskualdeko hainbat institututan ere egingo dute. Halaber, ikasleek ezingo dute euren ikastetxean egin proba, beste batean baizik.

Proba prestatzeko aurrez aurreko eskolak jasotzeko aukera izango dute Nafarroako ikasleek ekainaren 19 bitartean.

EAEn, bestalde, uztailaren 6, 7 eta 8an egingo dute unibertsitatera sartzeko hautapropa eta ikasle horiek ere aurrez aurreko eskolak jasotzen hasita daude.

Ipar Euskal Herriko ikasleek, ostera, ez dute baxoa egin beharko. Unibertsitatera sartzeko proba egiteko baldintzarik ez dagoela adierazi du Frantziako Hezkuntza ministroak, eta ikasturtean zehar ikasleak duen batez besteko nota hartuko da kontuan.



Sustraietatik ametssetara

Pertsonaren nortasunaren eraikuntzan hain garrantzitsua den 0-6 etapan bidelagun diren hezitzaileentzako aditu titulua, zaintzan eta pedagogia eraldatzaileetan espezialista

Nori zuzendua?

Haurraren zaintzan eta heziketan diharduten hezitzaileei, eta baita haurraren garapena ongi ezagutu nahi duten erizain, psikologo, psikoterapeuta, aisialdiko hezitzaile nahiz teknikariei ere.

Zer eskaintzen da?

- Bi urteko formazioa (130 eta 127 ordu) eta aditu titulu homologatua.
- Edo banakako titulua: 0-6 etapako aditu titulua zaintzako espezialitatea 130 ordu edo 0-6 etapako aditu titulua pedagogia eraldatzaileetako espezialitatea 127 ordu.
- Euskal Herriko nahiz atzerriko profesionalekin (Pikler-Loczy institutua, Reggio Emiliako eskolak, Kataluniako Bressol eskolak, Heike Freire...) formazio presentziala.
- Zentroetara formazio-bisitak (Gasteizko Aiurri Montessori, Geroa Waldorf eskola, Baztan haur-eskola...).

Lehen urtea: Zaintzaren garrantzia

Formazioaren koordinatzaile pedagogikoa:

Hik Hasi

Formazio pertsonalaren koordinatzailea:

Alvaro Beñaran

Nondik norakoak:

Haurra ongi zaintzea funtsezkoa da haur hori ongi sentitu dadin. Ongizateak emango dio segurtasuna, bere burua osasuntsu eraikitzeke hain garrantzitsua den segurtasuna. Beraz, haur txikiaren ondoan dagoen helduaren egitekoa ikaragarri garrantzitsua da, sinplea bezain konplexua baita haur txikia zaintzea.

Emmi Pikler pediatria hungariarrak ekarpen ezinbestekoa egin zuen haurraren zainketa-lanei dagokionez. Loia, higiena, parded-aldaketa, jatorduak, esfinterren kontrola... ongi zaintzearen garrantzia nabarmendu zuen batetik Piklerrek, eta horrekin batera, haurraren gorputzaren garapena eta haren mugimenduaren eboluzioa zaintzea eta aukerak ematearen garrantzia nabarmendu zituen.

Haurraren zaintzaren garrantziari eskainiko diogun ikasturte honetan Emmi Piklerren ekarpenak izango

dira formazioaren zutabe nagusietako bat. Beste zutabearen ardatza heldua izango da. Haurrarekin lan egiten duen profesionalaren zainketa ere ezinbestekoa baita. Helduaren egoera eta jarrerari jarraipena egingo zaio formazio pertsonalean Alvaro Beñaranekin.

Landuko diren edukiak eta balioak:

- Zaintza-uneak: loa, jatorduak, parded-aldaketa...
- Haurraren mugimendu autonomoa
- Sozializazio baketsua
- Hazkuntzari buruzko paradigmatik

Irakasleak

- Xabier Tapia, psikologo klinikoa
- Juanjo Quintela, Emmi Pliker pedagogian aditua
- Pikler Loczy institutuko hezitzaile Jutka Kelemen
- Montse Fabres, haur eskoletako aholkulari kataluniarra
- Susana Martinez, Eskurtze eskolako irakaslea.
- Sonia Kliass, Waldorf eta Pikler pedagogien aditu kataluniarra
- Alvaro Beñaran, psikomotrizista eta UNEDeko Luzaroko kidea

Bigarren urtea: Pedagogia eraldatzaileak

Formazioaren koordinatzaile pedagogikoa:

Kristina Goñi

Formazio pertsonalaren koordinatzailea:

Alvaro Beñaran

Zaintzari eskainitako lehen urteko formazioaren osagarri moduan egin liteke, edo formazio-beregain gisa, urtebeteko aditu-titulua eskuratzeko.

Nondik norakoak:

0-6 urte bitartean pertsonaren nortasunaren zutabeak ezartzen dira, eta haren bidelagun izango den hezitzaileak pedagogia berritzaileen laguntzarekin haur bakoitzaren nortasunaren eraikuntzan laguntzeko tresna ugari izango ditu. Ikastaro honetan ezagutara-ziko diren pedagogiek gauza bat daukate komuneak: haurra erdigunean jartzen dute, eta banako gisa, haren beharrei eta erritmoei erreparatuz, loratzeko baliabideak eskaintzen dizkiete.

Hezitzaileak haurra zainduko badu, ordea, bere burua ongi ezagutu behar du, eta beraz, bere burua zaindu behar du. Horretarako, bigarren urte honetan ere formazio pertsonala egingo dute hezitzaileek Alvaro Beñaranekin.

Landuko diren pedagogia korronteak eta autoreak:

- Loris Malaguzzi eta Italiako Reggio Emiliako eskolak
- Maria Montessori
- Mauricio eta Rebeca Wild
- Waldorf pedagogia (Rudolf Steiner)

Landuko diren balioak:

- Familiekin harremanak (Kataluniako Bressol haur-eskoletako esperientzia oinarriturik)
- Naturaren garrantzia (Heike Freirerekin)
- Haurraren autonomia, askatasuna eta mugak
- Emozioen kudeaketa pedagogia sistemikotik

Irakasleak:

- Alfredo Hoyuelos, Loris Malaguzzi pedagogian aditua
- Edurne Lekunberri eta Gari Torregrosa, Iruñeko Udal Haur Eskoletako zuzendariak
- Heike Freire, pedagogia berdeetan aditua
- Kristina Goñi
- Quite Martinez eta Eva Querol
- Miren Camison

Ikasturtean zehar egingo diren bisitak:

- Waldorf Geroa eskolara bisita: Rudolf Steiner
- Aiurri Montessori eskolara bisita
- Baztan haur-eskola

-Prezioa

-2 ikasturteak: **2.500 euro**

-1. ikasturtea soilik: **1.450 euro**

-2. ikasturtea soilik: **1.450 euro**

***OHARRAK:**

Kontrakorik ezean, saio guztiak Donostiako EHuren Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko 2. eraikinean izango dira (Antigua auzoan - Oñati plaza, 2)
- Egun osoko saioetan elkarrekin bazkalduko dugu eraikineko kafetegian.
- Goizean hamaiketako ematen da eta arratsaldetan merienda.





Eskolak ixtearekin batera, hezkuntza ikastetxearen inguruetik online-ingurunera pasa zen. Baliabide eta tresna digitaletan adituak bilakatu dira irakasle eta ikasle asko, baina horrek ez du esan nahi kompetentzia digitalak betetzen direnik, tresnak erabiltzen jakitetik harago baitoaz gaitasun digitalak, Amaia Arroyo Sagasta Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko irakasle eta ikerlariak Hik Hasi Laborategian eman zuen ikastaroan adierazi zuen bezala: "Kompetentzia digitalak esaten digu askoz haratago joan behar dugula". Jarraian Arroyo Sagastaren 'Teknologia digitalak hezkuntzan: aldaketarako aukera baliatzen' ikastaroko bi atal nagusiak jaso ditugu, kokapen kontzeptuala alde batetik, eta praktikarako tresna eta baliabide interesgarriak eta gidalerroak azaltzen dira, bestetik.

GAIA: TEKNOLOGIA DIGITALAK PEDAGOGIAREN ZERBITZURA

Koronabirusaren osasun-krisiak online-testuingurua hezkuntza-arautuarekin jarraitzeko bide bakartzat ezarri digu aurrez aurre, eta egun batetik bestera, irakasleak, zeinak lehendik ere formazio asko jaso izan dituzten gaiak, praktikara pasa beharra izan dute bat-batean. Plataforma digitalak, meet-ak, Zoom, Jitsi edota Google Classroom hiztegi berriko hitz arrunt bilakatu ditu osasun-krisiak hezkuntzan. Irakasleek online testuingururako materiala sortu beharra izan dute buru-belarri, plataformak baliatu dituzte ikasleengana iristeko eta haiei edukia emateaz gain, haiengandik galdera, erantzun, gogoeta eta feed-backak jasotzeko. Ibilian-ibilian, ordea, galdera asko sortzen dituen eremua da online-testuingurua, bai alor teknikoan —besteak beste, zein diren baliabide proposenak helburu didaktiko bat edo beste bat erdies-terko—, baina baita alor etiko eta humanistikoan ere itaun asko irekitzen dituen eremua da teknologia digitalena.

Hik Hasik maiatz eta ekain parterako urgentziaz antolatu zuen laborategiko ikastaro bat, baliabide eta metodologiari eskainiriko mintegiko ikastaro bat, hain zuzen ere, galdera horiei —eta gehiagori— erantzuteko baliatu nahi izan zuen, eta horretarako gaian espezialista eta

apasaionatua den irakasle batengana jo zuen: Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Humanitate eta Zientzien Fakultateko Amaia Arroyo Sagastarengana. Berau aurreko HIK HASI aldizkarian ere agertzen zen, UEUk eta EHUK elkarlanean argitaratu zuten *IKTak eta kompetentzia digitalak hezkuntzan* liburuaren editore eta egileetako bat baita. Arroyo Sagastak COVID-19ak eragin duen eraldaketa hezkuntza hobetzeko baliatzeko proposamena egin zuen *Teknologia digitalak hezkuntzan: aldaketarako aukera baliatzen* ikastaroan.

Zertaz ari gara kompetentzia digitalaz ari garenean?

Ikastaroa abiatu aurretik, hainbat termino argitu zituen Arroyo Sagastak, teknologia digitalaz ari garenean guz-tioz gauza bertsua uler dezagun. Hasteko, IKT akronimoa baztertu eta teknologia digitala aldarrikatu zuen. “Teknologia digitalen atzean tresnak daude, baina beste hainbat gauza ere badaude, pertsonak egiten eta sortzen baitituzte. Arkitektura eta atzean zer interes dauden kontuan izatea ere garrantzitsua da, tresnak ez baitira neutralak eta, beraz, jarrera kritikoa behar da”.

GAIA: TEKNOLOGIA DIGITALAK

Pedagogiaren zerbitzura

Euskal Herrian eta Europan hiritarren kompetentzia digitala zehazteko erreferentzia gisa erabili diren bi marko ezagutarazi zituen irakasleak kompetentzia digitala zein gaitasun deitzen zaion esplikatzeko: DigComp markoa eta DigCompEdu markoak. Marko horien helburua da argitzea kompetentzia digitala ez dela mugatzen gailuen erabilera, baizik eta begirada zabaldu eta kompetentzia digitala oinarritzko gaitasun gisa ulertaraztea, alegia. DigComp markoak kompetentzia digitala bost alorretan banatzen duela azaldu zuen Arroyo Sagastak: 1) Informazioa eta informazioa alfabetatzea. 2) Komunikazioa eta kolaborazioa. 3) Eduki digitala sortzea. 4) Segurtasuna. Eta 5) Arazoak ebatzea.

Informazioa eta informazio-alfabetatzearen barruan, informazioa maneiatzearekin lotuta dauden kompetentzia edo azpi-kompetentzia guztiak biltzen dira: nabigatzea eta informazioa, datuak eta eduki digitala bilatzea eta iragaztea; informazioa, datuak eta eduki digitala ebaluatzea eta berreskuratzea... Alor hau, Arroyo Sagastaren aburuz, “oinarrizkoa” da, “bestela, gaur egun dagoen informazio guztiarekin galduta gaude edo bestela bilaketak egin eta topatzen dugun lehenengo gauza hartzen dugu. Kompetentzia digitalak esaten digu askoz haratago joan behar dugula”.

Komunikazioari eta kolaborazioari dagokienez, markoak dio gailu digitalak besteekin harremanetan jartzeko eta komunikatzeko ez ezik “elkarrekin eraikitzeke, lan egiteko eta ikasteko” ere erabiltzen jakin behar dugula. Alegia, “COVID-19aren tesuinguru honetan sortzen ari diren egoeretan ikusi duguna egiteko”. Horrez gain, alor honek ere parte hartzea eta identitate digitala bezala kontzeptuen inguruko gaitasunak ere gain hartzen ditu.

Eduki digitalak sortzearen alorra litzateke, irakaslearen arabera, ezagunena kompetentzia digitala sakon ezagutzen ez badugu. “Inguruan bideoak edo infografiak egiten oso ona den norbait ezagutzen badugu, esaten dugu ‘oso kompetentea’ dela digitalki, baina hau atal bat da, ez da bakarra”. Markoak zehazten du, gainera, eduki digitala sortzeaz gain, sarean aurkituriko informazioa erabiltzeko arauak eta lizentziak errespetatzen jakin behar dela. Gainera, programazioarekin lotutako gaitasunak ere sartuko lirateke alor honetan.

Segurtasunari dagokionez, hizlariak zehaztu zuen segurtasun digitala ez dela ziberbullyngaren inguruko afera soilik, alor oso desberdinak ukitzen baititu: “Zenbat ordu pasatzen ditugun pantailaren aurrean; zein posturatan

gauden pantailaren aurrean; gailuak erosten ditugunean ingurugiroan eta beste herrialde batzuetako egoeran duen inpaktuaz jabetzen garen... hori guztia ere esan nahi du”. HUIHEZIKO irakaslearen aburuz atal hau oso garrantzitsua da, batez ere, etorkizunera begira jartzen bagara: “Teknologia digitalei loturiko zenbait gai etikoki jorratu beharko genituzke, argi dago horrela ezin dugula jarraitu”.

Arazoen ebazpenari dagokion atalak ez die soilik arazo teknikoei egiten erreferentzia, “erabaki digitalei” ere badagokie. “Ordenagailua blokeatu egin zaigula, edo proiektorea ez dabilela... baina ez da hori bakarrik kontuan izan behar duguna: ‘Nola erabil dezaket teknologia modu sortzailean nire ikasleen motibazioa pizteko, edo metodologia berritzaileak edo aktiboak erabiltzeko?’, hori guztia sartuko litzateke arazoen ebazpenean”. Norberaren kompetentzia digitalez hausnartzea eta norberak dituen gabeziak detektatzea ere beharrezkoa da hiritarren kompetentzia digitala zehazten duen markoaren arabera.

Hiritar guztien kompetentzia digitalak dira DigComp markoak zehazten dituenak, beraz, apurka-apurka haur, nerabe eta gazteak eurenganaten joan beharko liratekeen gaitasunak dira. Irakasleen egitekoa ikasleengan kompetentzia horiek sustatzea bada, eta ikasleak teknologia digitalean DigComp markoak ezartzen dituen kompetentziak erdiesten laguntzea bada, irakasleak berak jantzi behar du lehenik teknologia digitaletan. Horretarako sortu zen, DigCompEdu markoa. “Irakasleok izan beharko genituzkeen kompetentzia digitalak definitzen dituen markoa da, gure ikasleen kompetentzia digitala sustatzeko eta garatzen laguntzeko”, azaldu zuen laborategiko irakasleak. Kompetentzia profesionalak; kompetentzia pedagogikoak eta ikasleen kompetentziak zehazten ditu. Markoaren muina kompetentzia pedagogikoei osatzen dute, baliabide digitalak aukeratu, sortu, kudeatu eta partekatzeko gaitasunak ari da; irakaskuntza eta ikaskuntza-prozesu horiek sustatzeko gai izan beharko ginatekeela dio, online ingurune batean eta online dauden baliabideak erabiliz irakaskuntza, gidaritza, tutoretza, ikaskuntza autogidatua nahiz kolaboratiboa baliabide digitalekin sustatzeko gaitasuna nabarmentzen du. Edukiak sortetik harago, feed-backa jaso, ikasleen jarraipena egin eta ebaluatzeko gaitasuna izatea beharrezko jotzen ditu markoak. Horrez gain, ikasleen ahalduntzeari garrantzia ematen dio DigCompEdu markoak, inklusioaz, irisgarritasunaz, pertsonalizazioaz ari da markoa. Baina Arroyo Sagastak azpimarra berezia egin zion kompetentzia profesionalaren barruan zehazten den konpromiso profesionalari: “Une honetan ezin zaio bizkar eman

GAIA: TEKNOLOGIA DIGITALAK PEDAGOGIAREN ZERBITZURA

ikasleen kompetentzia digitala lantzeari, hau ez da hautu bat, ezin dugu esan “niri ez zait hau guztia gustatzen, beraz, ez dut landuko. Egoera honek argi utzi digu”.

HUHEZIKo irakaslearen aburuz, ez da gakoa kompetentzia digitaletan “top” izatea, eta are gutxiago merkatuan dauden gailu, baliabide eta tresna guztiak ezagutzea. Amaia Arroyo Sagastarentzako gakoa teknologia digitala irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren zerbitzura jartzea da. Ikuspuntu teknopedagogikoa deitzen dio horri, eta are gehiago, ikuspuntu teknopedagogiko kritikoa sustatu behar dela uste du: “Defendatzen dudana teknologiaren erabilera pedagogikoa da bai, baina ikuspuntu kritiko batetik; nik irakasle moduan erantzukizun bat daukat nire ikasleen garapen integralarekiko, eta digitalean ere bai”.

Teknologia digitalak zer eskain diezaiokie hezkuntzari?

Teknologia digitalak ekarpen handia egin diezaiokie hezkuntzari, Amaia Arroyo Sagastaren arabera, baina horretarako, lehenik eta behin erdigunean ikaslea jarri behar da, eta ez gailuak. “Askotan ikuspuntu instrumentalera jotzeko joera dugu, eta tresnei begiratzeko. Ez, ikaslea da erdigunean egon beharrekoa, eta are gehiago: nik zabalduko nuke eta pertsonak esango nuke”. Lehenik eta behin, gaur eguneko ikasleak ez direlako, askotan esaten den bezala, natibo digitalak. “Ideia hori baztertu egin beharko genuke. Egoera edo belaunaldi batean jaiotzeak ez dizkigu, magikoki, kompetentzia batzuk ematen. Gu denok kotxez inguratuak jaio gara, baina horrek ez du esan nahi denok kompetenteak garenik kotxeak gidatzen, edo motor batek nola funtzionatzen duen badakigunik... Teknologia digitzalez inguraturik jaiotzeak ez digu bermatzen horiek erabiltzen jakitea edo etikoki eta osasunaren aldetik ondo erabiltzea”. Natibo digitala kontzeptuaren aldean, “umezurtz digitalena” erabili zuen: “Teknologia ematen diegu eta beraiek guk baino gehiago dakitela esaten dugu, baina gero kexatu egiten gara teknologiak ez dituztelako ondo erabiltzen. Helduen gidaritzara behar dute, gure laguntza eta aldamiaja”.

Ikaslea ardatz jartzearekin batera, teknologia digitzalek aukerak ematen dizkiote ikaslearen prozesuari, baina aukera horiek baliatzeko, lehenik eta behin ikaslearen ongizatea bermatu behar da, “bai segurtasun aldetik — gu ere bagara erantzule ingurune digitaletan hainbat arriskutan ez erortzeko —, baina baita aukeren ikuspuntutik ere”. Haatik, arrakala digitalaren gaiari heldu beharrekoa deritzo, COVID-19ak eragindako krisiak argi utzi baitu arrakala



digitala arrakala sozialarekin bat datorrela, eta handia dela: “Irakasleok ere horretan indarra egin behar dugu, baliabiderik ez dutenekin edo kompetentzia maila baxua dutenekin hor egoten eta saiatzen”.

Aukerei dagokionez, teknologia digitalak “kompetente digitalak” sortzeko eta garatzeko aukera eskaintzeko balio du. “Gaur egun Euskal Herrian gizarte digitalean bizi gara, eta errealitate horretan kompetente digitala izateak aukera asko ematen ditu, zorionsuago izateko, bizimodua aurrera ateratzeko, artista moduan garatzeko, eta abar”. Gaur eguneko errealitatean ez ezik, etorkizunekoan are beharrezkoagoa izango da kompetentzia digitala garatzea; “Etorkizunerantz daukagun bideak batzuetan beldurra ematen digu, hor dago Big Data, Machine Learning, inteligentzia artifiziala... etorkizuneko lanbide horietan lan egingo dutenek jakin behar dute etikoki eta teknikoki balio batzuk izaten eta erabaki batzuk hartzen denon ongizatea eta garapena ahalik eta osasuntsuena eta jasangarriena izateko. Horretarako prestatu behar ditugu gure ikasleak”.

Tresnak eta baliabideak

Kokapen kontzeptuala egin ostean, alderdi praktikora etorririk, hezkuntzan eta ikaskuntza-prozesuetan baliagarriak eta interesgarriak izan daitezkeen tresnen berri eman zuen HUHEZIKo irakasleak. Erremintak aurkeztu aurretik, buruan helburu didaktikoa edukitzearen garrantzia azpimarratu zuen irakasleak. “Helburu didaktikoak argi eduki behar ditugu eta gero has gaitzeko tresnetan pentsatzen. Askotan entzun dut, ‘bloga erabiltzen

GAIA: TEKNOLOGIA DIGITALAK

Pedagogiaren zerbitzura

hasi behar naiz eta jakin nahi dut zer egin dezakedan'. Hori ez da bidea. Lehenengo zer egin nahi dugun jakin behar dugu, eta ondoren, tresnak bilatuko ditugu". Izan ere, tresnak eta baliabideak milaka daude erabilgarri, beraz, baliabideak antolatzea komeni da. Arroyo Sagastak DigComp markoaren arabera antolatu zituen erreminta interesgarriak.

Markoaren lehen alorrari begira, informazioaren alorrerako interesgarriak izan daitezkeen tresnei dagokienez, bilatzaileak ugaritzea gomendatu zuen, Google, Bing edo Yahooz gain, DuckDuckGo aipatu zuen. "Azken hori pribatutasunarekin kontzientzia handia daukan bilatzaile bat da eta merezi duela uste dut". Helburua ez litzateke beti DuckDuckGo erabiltzea, irakaslearen ustez, baizik eta bilatzaileak konbinatzea: "Azken finean bai geure buruak eta baita ikaslea ere hainbat iturri erabiltzera behartzea da, eta kontraste-lana sustatzea, horrela eraikitzen baita jakintza". Irudien bilatzaileei dagokienez, modu librean erabil daitezkeenak aipatu zituen: Pixabay, Pexels eta Creative Commons bilatzailea. "Baliabide horien inguruko gakoa pentsamendu kritikoa sustatzea da", eta hori, irakaslearen aburuz, lehenengo etapetatik egin behar da: "Aldamiaje handia egin behar da, beraiekin egin behar dira bilaketak, oso gidatuak izango diren bilaketa gutxi baina esanguratsuak".

Markoaren bigarren alorrari dagokionez, komunikazioa eta kolaborazioarena,aldi berean egiten den komunikaziorako edo komunikazio sinkronorako Google meet, Zoom edo Jitsi (bideokonferentziak egiteko), edo Googleren txatak



aipatu zituen. Baina tresnetatik harago, horiek nola erabili garrantzizkotzat jo zuen: "Ezin dugu egin lehen bost ordu klase genituen bezala, orain bost orduko bideo-konferentziak egin: online-ingurunea ez da horretarako. Presentzialtasuna edo sinkronotasuna zaindu eta neurtu egin behar da eta komunikazio asinkronoarekin edo momentu berean gertatzen ez den komunikazioarekin konbinatu behar da". Horretarako, oso tresna oinarritzko eta erabilgarriak dira foroak batetik, Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklotik aurrera balio dezaketenak, irakaslearen iritziz — Moodle plataforman daudenak izan daitezke hezkuntzan erreferentzia, nahiz eta gehiago badauden —; eta beste aldetik, bideoak. Horiekin, ikasleek nahi dutenean eta nahi beste ikus ditzakete irakaslearen azalpenak edo bestelako edukiak.

DigComp markoaren hirugarren atalari, eduki digitala sortzeari, dagokionez aukeren ugaritasuna azpimarratu zuen Arroyo Sagastak: "Online-ingurunera salto egiten dugunean beti dokumentuetan pentsatzen dugu eta pdf-ak igotzen ibiltzen gara, baina aukera ugari daude: aurkezpen interaktiboak, bideoak, infografiak, jolasak eta abar". Googleren tresneria guztiaz gain, Microsoft paketea eta software askeko tresna guztiak daude. Gomendatu zuen infografiak eta aurkezpenak ikasleei eurei egiteko proposatzea jarduera gisa, horretarako Genially edo Canvaren erraztasuna eta erakargarritasuna aipatu zituen. Jolasak ere proposamen onak izan daitezke, eta Educaplay, eXeLearning (software librean), Quizziz edota Kahoot! aipatu zituen.

Gakoa, tresna bat edo bestea aukeratzean, sormena bultzatzearen alde egitea da, Arroyo Sagastaren iritziz. "Askotan pentsatzen dugu eduki digitala sortzearen arduradunak gu geu garela, baina ikasleei pilota hori pasa diezaiekegu, eta horrekin beraien sormena, gustua, askatasuna, arterako gustua eta konpetentzia lantzeko aukera bultzatzea dezakegu".

Ikasleei proposatuko dizkiegun tresnen artean koherentzia bat edo narratiba bat mantentzea garrantzitsua da irakaslearentzat, "ikaslearentzat ulergarria izan dadin eta tresna batetik bestera saltoka ibil ez dadin". Plataformek bateratzen dituzte tresnak, eta horien artean hezkuntzan bereziki Moodle eta Google Classroom erabiltzen dira. Moodlen aldekoa da Arroyo Sagasta, "software librea izateaz gain aukera pila bat eskaintzen ditu".

Baliabideen atala ixteko, nabarmendu zuen erremintekin itsutu gabe eta hamaika tresna erabiltzen ibili beharrean, aukeraturiko horiek "pedagogikoki, metodologikoki eta didaktikoki ondo aprobetxatzea" aski dela.

Teknologia digitala hezkuntzan integratzeko 10 gidalerro

Alor teknologikoa

1- Areatza pertsonak dira, ez teknologiak

"Eta ez bakarrik ikasleak, baita irakasleak ere. Egoera honetan ikusi dut irakasleok gure gaitasunetatik haratago lan egiten ibili garela, jauzi digitalaren aitzakiak edozer eskatzeko balio izan duela. Teknologia digitalaren lemapean ezin dugu pertsonen ongizatea kolokan jarri: ez ikasleena, irakasleena, gurasoena, ezta familiena ere".

2- Ingurune teknologikoa ikasteko espazio bat gehiago

"Ingurune digitala ez da pdf-ak eta bideoak igotzeko, edo estekak jartzeko leku bat bakarrik. Ingurune bat gehiago da, likidoagoa dena, baina hor ere komunikazioa, harremanak eta ikaskuntza gertatzen dira, eta hala ulertzea garrantzitsua da. Bestela, biltegi bat dela pentsa genezake eta ez, beste espazio bat bezala. Gela edo patioa bezala, ingurune digitala ere ikasteko aukera ematen duen espazio bat da".

3- Etikan oinarritutako erabakiak hartu behar ditugu

"Tresnak ez dira neutroak. Ongizatearekin eta balioekin lotutako erabakiak hartu behar ditugu, baita lan-kargarekin lotutako erabakiak edo segurtasunarekin edo pribatutasunarekin lotutako erabakiak hartzen ditugunean ere".

Alor didaktiko-metodologikoa

4- Irakaslearen rola aldatu edo fokatu egin behar dugu

"Irakasleok gehiago zentratu behar gara diseinatzaile, erraztatzaile, eduki sortzaile eta dinamizatzaile izaten, eta gure lan guztia ez dugu oinarritu behar bideokonferentzian eta ikasleak modu pasiboan edukitzean. Eredu tradizionalak online ingurunera pasatzean aldaketarako aukera hau aprobetxatu beharko genuke irakaslearen rolari beste buelta bat emateko. Hor dago benetako erroka".

5- Diseinu teknopedagogikoak buruan

"Ez da gauza bera aurrez aurreko irakasle- ikaskuntzarako diseinatzea edo online-ingurune baterako soilik diseinatzea, edo hibridoa edo *blended learning* modalitate-rako diseinatzea. Horretarako jantzi egin behar gara, eta bitarte horretan dauden inplikazioak ulertu behar ditugu, harremanak, feed-backa emateko era, kalifikazio modua, ebaluzio-ereduak...".

6- Irakaslearen ekarpena funtsezkoa da

Teknologia digitalek irakasleoi lana kenduko digula esan izan da bolo-bolo; robot batek edo adimen artifizialak ariketak edo jarduerak ezar ditzake eta, ikaslearen emaitzen arabera, ariketa gehiago edo mota batekoak edo besteak eskain diezaiekete. Baina ezin dituzte diseinu teknopedagogiko aproposak egin. Honek, beraz, irakasle moduan ahalduentzeko balio behar liguke, eta gure kompetentzia digitalak ikas- eta irakas-prozesuetan nolako eragina izan dezakeen ikusteko".

Alor akademikoa

7- Gaur eguneko ikasleak ez dira natibo digitalak

"Ez dakite teknologia sakon erabiltzen. Kontua da ez daukatela beldurrik gauzak ukitzeko, baina ez daude jantziak, eta oro har, eta ez dira kompetenteak. Beraz, ikaslearen kompetentzia digitala landu behar dugu, bai ala bai. Gure erantzukizuna da eta curriculumak hala eskatzen digu, eta ez bairik gabe mahai gainean jarri behar dugun gaia da".

8- Alde gizatiarraren garrantzia

"Ikasleekin daukagun harremana zaintzea garrantzitsua da: idazteko modua eta feed-backa emateko modua zaindu behar ditugu. Pantailaren atzean mezu bat jasotzea hotza izan daiteke; bideoak edo audioak, aldiz, lagundu egiten dute, zehaztapen asko baitoaz begiradarekin edo ahots doinuarekin".

9- "Komunikazioari buruz hausnartu behar dugu"

"Sistematizatu egin behar dugu ikasleekiko komunikazioa, gure helburuak betetzen direla eta ikasleengana eta familiengana iristen garela bermatzeko".

Gidalerro orokor bat

10- Gai gara

"Irakasle guztiok gai gara egoera honi aurre egiteko eta kompetentzia digitala landu eta benetan hezkuntzan ekarpen handi bat egiteko, horretarako, teknologia digitalak eskaintzen digun aukera hau baliatuz. Profesionalak gara, formatuak gaude eta formatzen jarraitzen dugu. Denon borondatea eta konpromisoa behar dugu digitalizazioa benetan alderdi osasuntsu eta pedagogiko eta etikotik ikusi ahal izateko".



“Hezkuntzaren funtzio inportanteenetako bat humanismo aktiboa lantzea da, horrek eramaten gaitu eraldaketara”

ELKARRIZKETA:

J. IÑAKI

ETXEZARRETA

ARIZMENDI IKASTOLAKO ZUZENDARI OROKORRA

Profesionalki etxeko nahi eta gogo sentituenen kontra hautatu zuen irakasle izatea, eta geroztik bizitza osoa darama euskal hezkuntzan murgilduta, bereziki ikastolen mugimenduari lotuta. 19 urterekin hasi zen irakasle herriko ikastolan, Urretxu-Zumarragakoan, eta 24 urterekin izendatu zuten zuzendari. Herritik Gipuzkoara eman zuen urratsa ondoren, GIE Gipuzkoako Ikastolen Elkartera, eta handik Euskal Herrira, Ikastolen Konfederaziora. Guztietan zuzendari karguak betetakoa da eta ikastolen mugimenduari une giltzarrietan lekuko eta partaide

izatea egokitu zaio. Euskarazko ikasmaterialgintzan ere lan nabarmena egindakoa da: Urretxu-Zumarragako Ikastolako irakasleek egin zituzten Elkarren euskarazko lehen testuliburuak, Elkar-GIE lankidetzaz bultzatu zuten eta Ikaselkarren sorrera egosten hartu zuten parte. 2013az geroztik Arizmendi Ikastolako zuzendari orokorra da eta Arizmendiri guztiz eskertua dago jubilatutako aurreko urteetan proiektu interesgarri bat zuzentzeko aukera emateagatik eta “nire bokazioarekin eta mundua ikusteko erarekin bat eginda bukatzeko aukera izango dudalako”.



Euskal hezkuntzan 45 urteko ibilbidea egin ondoren, Arizmendi Ikastolako zuzendari orokorra zara azken zazpi urteetan. Ofizialki jubilatu aurreko zure azken lan-jarduna izango da eta pedagogia berritzaileen erreferente bihurtzen ari den ikastola bat utziko duzu. Zer eredu mota ari zarete eraikitzen?

Ni 2013an iritsi nintzen Arizmendira eta ordurako aurreko zuzendaritza eraldaketa oso sakona planteatzen zuen proiektu bat abiatzen ausartu zen, “proiektu berria” deitzen ziotena, Rafael Cristobalek lagunduta. 2009an hasi ziren eta 2013az geroztik sartu berri ginen zuzendaritza kideon egitekoa proiektu horri gorputz teoriko bat ematea izan da. Haur Hezkuntzan abiatutako planteamenduari hezkuntza prozesu osorako ikuspegia ematea izan da gure zeregina, hasi Haur Hezkuntzatik eta Batxilergora eta Lanbide Heziketara arte, Amaia Anterok gidatuta.

Proiektuari Konfiantzaren Pedagogia izena eta izana (marko teorikoa) erantsi zitzaizkion. Hezkuntza desberdin bat planteatzen genuen, baina eskola desberdin batekin. Bi kontzeptu horiek oso inportanteak ziren guretzat. Alegia, ezin zitekeen egin planteamendu pedagogiko huts bat, modernoa, abangoardista eta eraldatzailea, eskola desberdin batean egiten ez bazen.

Hezkuntza desberdin bat eskola desberdin batean. Konfiantzaren Pedagogia da hezkuntza desberdin hori, eta zein da horri lotutako eskola desberdina?

Hortik abiatuta egin dugu gure ikastolaren definizioa. Guretzat ikastola euskaldunon hezkuntza-autoeraketa da, alegia, euskaldunon hezkuntza-autogestioa. Beraz, planteatzen duguna da guk, euskaldunok, sortu dugula ikastola, ez duela gobernu batek sortu, eta gainera, sortu dugula hezkuntza jarduera jakin baterako, eta beraz, estrategikoa dela. Batzuentzat hitz horrek ez dauka edukirik, baina niretzat eduki sakon-sakona du: pertsonaren ikuspegi bat da, gizartearen ikuspegi bat da, nazio baten ikuspegi bat eta mundua ulertzeko ikuspegi bat, hezkuntza. Eta autogestionarioa planteatzen dugunean esaten dugu bai pertsona hori, bai gizarte hori, bai herri edo nazio hori, eta bai mundua ere beste murrizketarik gabe ulertzen dugula, alegia, askea, eta beraz, bere buruaren jabe. Erabakitzailea.

Beraz, horren arabera planteamendu ideologiko jakin bat dugu, planteamendu politikoa, ikastola horrela ulertzen dugulako: bere erabakiak berak eta beste inork hartzen ez dituen entitate komunitarioa da ikastola.

Hori dena Konfiantzaren Pedagogiaren muin-muinean dago. Izan ere, guk zera planteatzen dugu:

umea, nerabea, gaztea, heldua dela bere buruaren jabe. Bere buruaren jabe izan dadin, lagundu egin behar diogu heziketa prozesuan, pertsona hori guztiz autogestionarioa, guztiz autoerregulatua eta guztiz bere buruaren jabe izateko. Era horretako pertsonak ditugun heinean, gai izango gara gizarte moduan herrian, bailaran, nazioan eta munduan beste eraldaketa bat bultzatzeko.

Horrek lotura handia dauka Jose Mari Arizmendiarietaren pentsamendu sozialista, autogestionario, kooperatibo eta solidarioarekin. Oso planteamendu humanista egiten zuen, gizartea pertsonen artekoa ulertzen zuen eta hori oso ondo lotzen da hezkuntzarekin. Azkenean, hezkuntza pertsona haztea eta lantzea da, baina pertsona ezin daiteke hazi eta hezi ez badu besteekin batera egiten. Hori oso ondo lotzen da gure herriak daukan joera komunitarioarekin. Alegia, planteatzen duguna da pertsona indartsua, eraldatzailea, euskalduna eta jantzia, baina aldi berean pertsona hori komunitatea indartzeko. Hartara, komunitateak ere parte hartu behar du ume, nerabe, gazte horren heziketan.

Eraldaketa aipatzen duzunean, zein da buruan daukazuen eraldaketa? Zein eraldaketa motaz ari zara?

Eraldaketa soziala planteatzen dugunean hainbat arlotan ari gara

planteatzen. Hasteko, gaur egungo gizarteko erronkekin lotuta dauden Garapen Jasangarriaren Helburuak daude, gure ingurumenaren jasangarritasunarekin eta elementu fisiko eta naturalekin lotuta. Hori oso-oso lotuta dago euskararen aberriarekin. Euskalduntze prozesua behin ere pentsatu ez genuen mailetara iritsi da, baina oraindik sekulako lana daukagu egiteko, eta gainera, erronka berriak sortzen zaizkigu etorri berrien familiekin eta haien seme-alabekin. Genero kontuak ere hor dauzkagu; asko aurreratu dugu, baina asko dago egiteko oraindik.

Guk ez ditugu egiten gure estrategiak heziketa hori bultzatzeko soilik, baita gure ikasleek gero beteko dituzten rol sozial desberdinetarako ere. Eta rol sozial desberdin horiek beteko dituzte lagunartean, familian... eta baita herriaren geroan ere. Alegia, momentu batean planteatzen duguna da gure herriaren geroan esku hartuko duten enpresariak, herri honen geroaren instituzio politikoetan zein eguneroko bestelako eginkizun xumeetan parte hartuko duten pertsonak praxian heztea ume-umetatik. Alegia, gure proiektu pedagogikoak ezin dira inondik ere kontenplatu eraldaketari begira ez bada. Egiten dutena egiten dutela, izan dadila gizartean inpaktu bat edukitzeko. Eta gizartean inpaktua izan daiteke familian, lagunartean, eskolan bertan, enpresa batean, instituzio politikoetan eta beste hainbat esparrutan.

Eraldaketa hori ez da gertatzen behin nerabeak edo gazteak adin bat betetzen duenean eta automatikoki “jada prest dago hori egiteko” esanda. Ez. Txiki-txikitatik berak ikusi eta bizi behar du eragin dezakeela eta eragin behar duela bere ingurunean, bere buruarengan eta besteengan. Konfiantza eduki behar du horretan, eta aldi berean, konfiantza horrek eraman behar du gauzak zuzendu, egokitu edo hobeto egitera, eraldatzera. Beraz, bere bizitza-proiektua eraikitzen laguntzea, beste pertsona eredu batera eramango duena. Hori Arizmendiarrietaren idazkien muin-muinean dago, eta kanpora joan garenetan ere antzeko ideiak dituzte-nekin egin dugu topo.

Beraz, aipatutako ideia eraldatzaileekin eta pedagogia berritzaileekin dabilen jende gehiagorekin ere topo egin duzue. Norabide berean zabilzate guztiok?

Bai, guk pentsatzen dugun hori eta egiten dugun hori beste toki batzuetan ere pentsatu dute eta egin dute edo egin nahi dute. Ez da Euskal Herrian den fenomeno bakarririk, beste leku batzuetan ere badaude gauzak beste era batera planteatu eta egin nahi dituztenak. Orduan, ez da utopia bat planteatzen ari garena, bat baino gehiago gara eta sare bat josi behar dugu horrelako planteamenduetan sinesten dugunok elkarrekin jarduteko, hezkuntza eta eskola desberdin bat egiteko bakoitzak bere lekutik eta bere ezaugarriekin.

Adibidez, eskola eraldatzaileen ASHOKA sarean parte hartzen dugu eta zer pentsatua eragin dit horrek. 45 urtetan euskal irakaskuntzan jardun eta gero, nagusiki hezkuntza euskaldunari begira egon naizela, azken 10 urteotan konturatu naiz gogoeta oso partekatua dagoela hainbat testuingurutan, eta badugula ikastekorik eta eskaintzekorik beste testuingururuekin jardunean.

Bizitzen ari garen errealitate eta mundu berri honen baitan, badago galdera jakin batzuei erantzun bat aurkitu nahia. Testuinguru kultural eta politiko desberdinetan antzeko galderak egiten ditugu eta erantzunak oso antzekoak dira. Eta ausartuko nintzateke esatera barregarri geratu gabe, badagoela humanismo berri baten bila dabilen jendea eta bilaketa hori humanismo jakin batean ardaztuta dagoela; alegia, umea, nerabea, gaztea zentroan jarrita. Hori oso konstantea da ezagutzen ditudan hainbat esperientzia pedagogiko berritzailetan eta beraz, oso erraza zaigu horren inguruan aritzea.

Ez dakigu zer gertatuko den gure planteamenduekin, baina momentu honetan arrakasta itzela du eta familia gazteek hori nahi dute. Ez dakiguna da hau garatzen doan heinean gaur egun dauden instituzioek — tartean botere publikoek, indar politikoek eta oso kontserbadoreak diren elementuek — hori egiten utziko ote duten. Hori da dagoen galdera ikurra. Bistan

“Hezkuntza desberdin bat planteatzen genuen, baina eskola desberdin batekin. Bi kontzeptu horiek oso inportanteak ziren guretzat. Alegia, ezin zitekeen egin planteamendu pedagogiko huts bat, modernoa, abangoardista eta eraldatzailea, eskola desberdin batean egiten ez bazen”

“Planteatzen duguna da umea, nerabea, gaztea, heldua dela bere buruaren jabe. Bere buruaren jabe izan dadin, lagundu egin behar diogu heziketa prozesuan pertsona hori guztiz autogestionarioa, guztiz autoerregulatua eta guztiz bere buruaren jabe izateko”

“Egiten dutena egiten dutela, izan dadila gizartean inpaktu bat edukitzeko”



da honek ibilbide bat daukala eta eskolan dagoen jendearen baitan dagoela.

Marko teoriko hori nola ari zarete jartzen praktikan? Zein dira eraldaketa horren gakoak?

Eraldaketa guztietatik inportanteena pertsonala da. Konfiantzaren Pedagogiak planteatzen duen strategiara pasatzeko rol aldaketa egon behar du. Izan ere, ikaslea jartzen dugu erdian, eta beraz, lehenbiziko eraldaketa irakasleen rol aldaketa da. Ikasleak bere prozesua egin behar duen heinean, irakaslea ez da jada prozesuaren mui-na. Horrek aldaketa mentala eskatzen du eta ez da batere erraza. Zeren pertsona guztiok gara azturak eta ohiturak ditugun animaliak eta oso seguru egon beharra dugu aldaketa bat egitera goazela. Eta noski, horretan lagundu egin beharra daukagu, eta ez formazioarekin soilik.

Aldaketa honek eskatzen du gurasoak edo pertsona helduak prozesu horretan sartzea. Alegia, onartzea eskola espazioaren barruan ikasle eta irakasleez gain beste batzuk egon

daitezkeela. Ez modu iraunkorrean, baina bai une jakinetan. Hori ere aldaketa nabaria da, irakaslea ohituta dagoelako beste inor gabe aritzen.

Hirugarren aldaketa da irakasleek elkarrekin modu kooperatu batean jardun behar dutela, ez direla programazioa koordinatzera mugatu behar, baizik eta fisikoki ere elkarrekin aritu behar dutela espazio batean. Lan egiteko modu berriak agertzen dira, beraz: kotutoretza, koirakasletza... Alegia, irakaslea jada ez dago bakar-bakarrik, baizik eta beste batzuekin batera. Nola-halako kooperazio profesional berria ezartzen da.

Hirugarren elementu horretatik lau-garren bat eratortzen da: adin desberdinen eta taldeen arteko nahasketa. Ikaskuntza prozesuan adinak nahastean jakinduria desberdinak sortzen dira, aniztasun handiagoa dago eta hori kudeatu behar da. Garai bateko nekazal giroko eskoletan eta eskola txikietan bazeuden eta badaude horrelako esperientziak, baina eskola klasikoan ez zegoen horrelakorik.

Eta azken errematea, esandako guztia ahalbidetuko duen espazio

arkitektonikoa.

Elementu horiek denak koktel-ontzian sartuz gero, irakaslearen rol klasikoa krisian sartzen da. Horregatik, eraldaketa pedagogikoa eta eskola desberdin bat egiteko horretan, ideia edo proiektu on bat edukitzea ez da nahikoa, baizik eta proiektua nola laguntzen duzun eraldaketa bidean. Eraldaketaren pakete osoa hartzea komeni da, horrela jartzen baitira eraldaketa gertatzeko baldintzarik onenak.

Gero, eraldaketa horren barruan sakondu egin behar da eta sakontzeak esan nahi du hobeto ezagutu beharko dituzula metodologia eta materialen aukerak, eta askoz ere lan zorrotzagoa egin beharko duzula zure lana programatzeko eta antolatzeo garaian. Gu jada fase horretan gaude. Gure irakasleek igerian ikasi dute eta orain urpekariak izan behar dute. Beraz, 2009an hasi, 2013an gorpuztu eta orain, 2020an, eraldaketa egin ahal izateko biderei ikuspegi metodologiko bat ematera iritsi gara, prototipo bat edukitzera.

Zer esan nahi duzu prototipo bat daukazuela diozunean?

Prototipoa egin-moldea da, hezkuntza-prozesuaren etapa guztiak bateratzen dituen. Haur Hezkuntza Lehen Hezkuntzakoarekin, Bigarren Hezkuntzakoarekin, Batxilergokoarekin eta Lanbide Heziketakoarekin lotura koherentea egiten duena. Prototipoak ikasleak bizi dituen ikaskuntza-esperientziak antolatzen ditu, ikaskuntza autogestionarioa eta komunitarioa burutzeko.

Horrela, egunak eta asteak modu jakin batean hasi, garatu eta bukatzen dira. Egunaren hasieran harreman emozionala lantzen da: nola etortzen diren ikasleak eta gurasoak ikastolara, nola sartzen diren talde komunitario-ra, zer dakarten etxetik... Komunikatzea, elkarren berri izatea eta elkarreganako interesa agertzea elementu humanoak dira. Behin hori eginda, eguneko zereginean kokatzea garrantzitsua da: zer proiektu daukagu esku artean, non bukatu genuen atzo, zer egin behar dugu gaur, planifikazioaren zein zatitan gaude, tailerrak nola antolatuko ditugu, zein materialekin, zer funtzio jokatzen dute gure pro-

zesuan... Elementu horiek lantzeak mentalki kokatzen laguntzen du, eta beraz, prozesua norberaren eskuetan geratzen da. Autogestioak kontrola norberak edukitzea ahalbidetzen du.

Tutoretzarekin eta aisialdiarekin batera guk GPS deitzen dioguna lantzen dugu. Planteamendu filosofiko eta barnekoekin lotua dago, norberak bere nia ezagutzearekin. Besteekin egoteko uneak bezalaxe, norberak bere espazio partikularra eduki behar du bere barne gogoeta egiteko.

Eta amaitzeko, egunaren amaiera: banao hemendik, zer egin dut, zerekin noa, bihar nola bideratuko dugu... Bukaerako kontrola.

Prototipoak adin desberdinen, eta ikaskuntza prozesuaren konplexutasunaren arabera, tempus propioak ditu. Tempus horietan proiektuak eta dinamika desberdinak lantzen dira. Orden bat dago, hau ez da anarkia bat, eta autogestioaren bidez kudeatzen da.

Prototipo hori etapa desberdinetara eramaten ari gara eta hurrengo urrats garrantzitsua guretzat giltzarri den etapan egingo dugu: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailan eta DBHko 1. eta 2. mailan. BATU deitu diogu proiektuari eta diseinu iraultzailea du. COVID-19aren eraginez inplementazioa atzeratu beharrean aurkitu gara, espazioetan obrak ezin izan ditugulako egin, eta 2021-2022 ikasturtean martxan jartzea aurreikusi dugu.

BATU proiektua iraultzailea izango dela diozu. Zergatik?

Hortxe dagoelako hezkuntza prozesuaren kaxa beltza. Oso ohikoa da gurasoei adieraztea “orain jada zuen seme-alabak DBHn daude eta hau serioa da”. Zergatik esaten dugu hori? Zer salto dago hor? Planteatzen dugun diseinua iraultzailea dela diot, besteak beste, oso bestelako ebaluazioa planteatzen ari garelako. Hortik saiatuko gara gure ekarpenik handiena egiten.

Gure planteamendua ebaluazio hezigarrira hurbiltzea da. Ebaluazio kalifikatzaileari ahal den espaziorik txikiena eskaintzea. Ebaluazioaren adierazleak berrituta, horiei buruzko datuak jasotzea eta horien gaineko irakurketa dossier batean islatzea.

Portfolio modukoa. Dossier horretan pertsonak bere garabidea ikusiko du. Hor egongo dira bere lanak eta hor dokumentatuko du eraikitzen doan ezagutza, emaitzak, iruzkinak...

Politikoki ere ari gara mugitzen lege barruan aukera izan dezan ebaluazio hezigarri horrek. Errege dekretu batek arautzen du kalifikazio bidezko ebaluazioa eta eskatu duguna da lege dekretu horrek gurea bezalako planteamenduak ere ahalbidetzea.

Beraz, Lehen Hezkuntzako azken bi mailak eta Bigarren Hezkuntzako lehen biak batu ditugu eta prozesu bakarra planteatzen ari gara. Ez ditugu LH eta DBH bereizita ikusten, etapa bakar bat bezala baizik, 10-14 urte bitartekoa. Prototipoa hartu eta adin horietara eramaten ari gara eta horrek beste eraldaketa bat ekarriko du, zeren Bigarren Hezkuntzako irakasle gehienak beren ikasgaien soilik lan egiten ohituta daude eta hemen ez dugu horrela planteatzen. Ikasle bakoitza irakasle askoz gutxiagorekin egotea planteatzen dugu, prototipo horren arabera jardutea, koirakaskuntza, arloak diziplinartekoak eta globalak izatea, lanketa espezifikoa behar dutenean tailerren bidez egitea...

Alderdi akademikoak ere edukiko du bere lekua, baina pertsonaren irakuntzaren mende egongo da, bereziki pertsona da interesatzen zaiguna, nola ematen diogun bakoitzari bere proiektua egiteko aukera, autogestiorako aukera, eta aldi berean, autogestio kolektibo horren bitartez, edo talde kooperatiboen bitartez, edo adin desberdinetakoak nahastuz, nola egiten duten jardun hori elkarrekin. Irakaslearen eskema mentala aldatu egiten da, ez doa eskolak ematera, baizik eta heztera, eta hezten ari zaren neurrian beste eskema batekin jokatu behar duzu.

Euskararen irakaskuntzari dagokionez ere irakaslearen rola aldatu egiten da Konfiantzaren Pedagogiarekin: lehen irakaslea erdigunean zegoen eta hizkuntza erregistro eroso eta jori baten bitartez bermatzen zuen ikasleek gutxieneko abilezia bat edukitzea euskaraz. Orain zer?

Haurra txikia den heinean murgildu egiten da eta kito. Baina 9-15 urte

“Eraldaketa guztietatik inportanteena pertsonala da. Konfiantzaren Pedagogiak planteatzen duen strategiara pasatzeko rol aldaketa egon behar du”

“BATU proiektuan planteatzen dugun diseinua iraultzailea dela diot, besteak beste, oso bestelako ebaluazioa planteatzen ari garelako. Hortik saiatuko gara gure ekarpenik handiena egiten”

“Prototipoa egintza da, hezkuntza-prozesuaren etapa guztiak bateratzen dituen, denen arteko lotura koherentea egiten duena. Ikasleak bizi dituen ikaskuntza-esperientziak antolatzen ditu, ikaskuntza autogestionarioa eta komunitarioa burutzeko”



bitarteko adinean berandu eskolatzen direnentzat ez daukagu baliabiderik. Eta baliabiderik ezean, estrategia falta da. Horregatik, gure planteamenduan ikasle horiei zuzendutako estrategia aproposa sartu nahi dugu bai ikaslearen hezkuntza prozesuari dagokionez eta baita euskalduntzeari dagokionez ere. Horretarako, adin horietarako euskara ikasteko metodo bat behar da, curriculum propio batekin eta ikas materialekin. Une honetan ofizialki ez dago ezer online, ez dago formularik, ez dago curriculumik.

Eta honen guztiaren erdian COVID-19a. Zer ekarri eta erakutsi dizue egoera berri honek?

Ohikoa genuen Informazio eta Komunikazio Teknologien erabilera areagotzea ekarri digu. Hezkuntza telematikoa aplikatu behar izan dugu baliabideak genituelako horretarako. Eta konturatu gara irakasleek askoz lan gehiago egin dutela, jarraipena egunerokoa izan dela, eta pertsonalizazioa behin ere iritsi ez zen punturaino iritsi dela. Pantailaren bidez etxeetan sartu da irakaslea eta familiaren berri berehala edukitzeko aukera izan du, lehen baino gertuago egon da. Era berean, familiek seme-alabek ikastolan beste lagunekin, talde kooperatiboetan eta abar egiten zutena ezaigutu dute. Irakaslearen rola askoz gehiago erregulatu dute, zer eta nola egiten duen.

Konturatu gara aurrez aurrekoa ez dagoela ordezkaterik. Baina ere berean, online hezkuntzak aurrez aurrekoak ematen ez dituen beste aukera batzuk ematen ditu eta horiek baliatu nahi ditugu orain. Osagarriak izan daitezke.

Jabetu gara eta praktikan jarri dugu hilabete hauetan familiek ere ebaluazioan parte hartu behar dutela. Eta ikasleek ere albokoaren ebaluazioan parte hartu behar dutela.

Baduzue planteamendurik irailerako?

Ziurgabetasuna ez da gainditzen, eta onartu behar dugu, kostatzen zaigun arren, egoera hau agian ez dela behin behinekoa, baizik eta iraunkortasun handiagokoa. Beraz, hasteko, GPS lan bat egin behar da, norbera kokatzeko.

IKTen aurrekontuan aurreikusita daukagu azpiegitura teknologikoa, wifia eta abar zentroetan bermatzea. 700 ordenagailu eskatu ditugu familientzat, ikasleentzat, irakasleentzat... Datorren ikasturtean hau baldin bada errealitatea, ordenagailuak eduki behar ditugu. Eta egoera hobean baldin bagaude, ordenagailu horiek lau hilabete hauetan ikasi duguna gure espazioetan baliatzeko erabiliko ditugu.

Aldi berean, Arizmendiren Berrikuntza Pedagogikoaren arduradunak, Amaia Antero buru dutela, prototipoa oinarri hartuta, elementu berri horiek

denak nola txertatu aztertzen ari dira, 5. mailatik aurrera etxera eramateko ordenagailua izango dute-eta.

Sehaskako haurrekin eta LHko 2. mailara arte pentsatzen ari gara material manipulatio gehiago beharko dugula konfinamendu bat etorriko balitz. Kasu horietan gurasoei zein material eskaini diezaiekegun pentsatzen ari gara euren umeekin esperientziak bizitzeko.

Edonola ere, iraila baino lehen ekainean eta uztailan ikasleak ikastolan izan daitezen aztertzen ari gara eta eskaintza ludiko sozializatzailerak egingo dugu. Batxilergoko 2. mailan eta DBH 4.ean aurrez aurrekoa egiten ari gara, emozionalki elkarrekin egoteko beharra dutelako azterketen azken txanpa prestatzeko. Gainerakoei ez etortzeko esan diegu, ondo kontrolatuta daukagulako egoera. Kasu jakin batzuetan deituko diegu lan jakin batzuen inguruan zerbait egiteko edo bi edo hiru elkarrekin jarriko ditugulako lan bat edo dena delakoa egiten.

Haur eta Lehen Hezkuntzako gurasoei, berriz, galdetegi bat egin diegu eta ikastola udan irekitzearen aldekoak dira 400-500 guraso eta beharri- zain hori zaindu behar dugu.

Gurasoak eta haurrak zaindu, baina osasun-neurriak betez. Haurrek kontaktua behar dute, baina nola egiten da hori maskara eta distantziekin?

Ezinbestekoa da kontratu sozial bat

egitea gurasoekin. Umea lurrera eroriz gero guk besoetan hartu eta laztandu egingo dugu. Umeen artean elkar ukituko dute, eta materialak ukitu eta partekatuko dituzte. Beraz, jakin badakigu hori dela egoera. Garbitasuna mantenduko da, noski. Gurasoek, agian, umearen egoeraren arabera, egun batzuk ikastolan pasa beharko dituzte hezitzaileekin batera, umea lasai eta konfiantzan egon dadin. Eta kolaboratzeko eta parte hartzeko aukera izango dute. Egitasmo bat egingo dugu eta egitasmo hori gurasoekin partekatu eta hitzartuko dugu.

Dena dela, hori guztia aurrera eramateko, lehendabizi hezitzaile eta irakasleoi hainbat urrats egitea dagokigu.

Zer dela-eta? Irakasleak beldurtuta daude?

Bai. Konfinamenduak ondorio psikologiko eta sozialak eragin ditu. Batzuk ezagunak zaizkigu dagoeneko. Beste batzuk, berriz, ikuskizun ditugu.

Etxean egoten ohitu gara eta horrek halako ostrazismo mota bat sortzen du pentsatzeko eran. Egunero etortzen eta sozializatzen ez bazara, horrek zure beldurra areagotu egiten du, baina aldi berean erosotasun bat eragiten du, kasu gehienetan. Eta erosotasun horretan zure familia-tribu txiki horren baitan zaude, dena kontrolpean edukiz. Hurrengo fasera pasatu garenean, lanera etor gaitezke, baina kutsatzeko arriskua egon daitekeela-eta, beldur hori eragin digute. Dordokak egiten duen bezala, gure oskolean erosoago gaude. Eman diren baldintza soziologiko eta psikologoenatik etxea bihurtu da, inoiz ez bezala, izugarritzko indarrarekin, babesleku bakarra, salbuespenak salbuespen.

Agintariak indartu dira, esanak esan. Askoren jarrera da: “Gobernuak esan arte, edo derrigortu arte, etxean geratuko naiz”. Izugarria da.

Beraz, geure buruak desaktibatu behar ditugu ezuste, ziurgabetasun eta beldur horietatik. Konfiantza landu beharrean gaude, berriro ere. Bestela, bloketatuta gaude eta ez gara kapaz pentsatzeko, ez gara kapaz sortzeko

eta ez gara kapaz momentu honetan beste egoera bat irudikatzen.

Edonola ere, gizakiok inoiz ez diogu uko egiten barruan daramagun erre-beldia horri. Eta testuinguru batean edo bestean, beti ateratzen zaigu. Bizi dugun egoera honek baldintzatu eta mugatu egingo gaitu, baina daukagun grina hori ez digu kenduko. Eta hori da hezkuntza-prozesuan lantzen duguna. Lan hori egiten dugu, gure baitan daukagu hori edukitzea. Horregatik, humanismoa ezin daiteke soilik izan pasiboa, kontenplaziozkoa eta transzendentala. Humanismoak aktiboa izan behar du, aktiboa sozialki, nor bere buruarekiko eta besteekiko. Eta horrek eramaten zaitu eraldaketara, iraultzara, inkonformismora. Eta hori da hezkuntzaren funtzio inportanteenetako bat, humanismo hori lantzea.

Autogestioa aipatu duzu behin baino gehiagotan eraldaketaz eta zuen proiektuaz mintzatzean. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak COVID-19ak sortutako egoera kudeatzeko ikastetxeei eta zuzendariei autonomia eman dienean, ez da ondo ikusia izan. Zer iruditu zaizu zuri?

Niri oso ondo iruditzen zait autonomia ematea, baldin eta Hezkuntza Saila guk hartutako erabakietan sartzen ez bada. “Hori ikastetxeak ikusiko du” esaten bada, ongi, guk ikusiko dugu eta guk erabakiko dugu, baina gero eziezaguzu esan zer egin behar dugun. Hori ere gertatu baita; norberak ez egitea, eta besteei egiten ez uztea.

Legez, Administrazio publikoa da ikastetxe publikoen jabea, eta haien ugazaba den heinean, horietan guztietan erabakia hartu behar du. Eta zenbait une kritikotan ez da ausartu. Horrekin mugatu du gainerako ikastetxeon jokabidea, gure gizartearen eta ekonomiaren beste eragile askoren jarduna baldintzatu den bezala. Administrazio publikoa oso boteretsua izan arren, ezin du osasun giroa zaintzen duen ekimen herritarra gelditu. Hobe lankidetzan aritzea eta horretarako ikastetxeen gestio ahalmena errespetatzea. Hezkuntza euskaldunaren arrakasta du lekuko. Autogestioa izan da eta izango da gure indargunea.

“Konturatu gara aurrez aurrekoa ez dagoela ordezkaterik. Baina online hezkuntzak aurrez aurrekoak ematen ez dituen beste aukera batzuk ematen ditu eta horiek baliatu nahi ditugu orain”

“Bizi dugun egoera honek baldintzatu eta mugatu egingo gaitu, baina barruan daukagun erre-beldia eta grina ez digu kenduko. Eta hori da hezkuntza-prozesuan lantzen duguna”

“Hobe administrazioa eta ikastetxeak lankidetzan aritzea eta horretarako ikastetxeen gestio ahalmena errespetatzea. Hezkuntza euskaldunaren arrakasta du lekuko. Autogestioa izan da eta izango da gure indargunea”

ESPERIENTZIAK

COVID-19 ETA IKASLEEN ARTEKO ELKAR-ZAINTZA

Kideen emozioen ardura hartzea ere lankidetzaz delako

COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioei erantzuteko, martxoaz geroztik sormena eta baliabide berriak erabiltzeko abagunea sortu da ikastetxeetan, edukiak bermatzeko ez ezik, ikasleen egoera emozionalari erantzuteko erabili dira. Irunberriko Arangoiti Ikastolan eta Zizur Txikiko San Fermin Ikastolan ikasleen arteko taldekatzeak erabili dituzte elkar zaintzeko. Esperientzia horien berri eman dute Garazi Larrañaga Arangoitiko irakaslea eta Lina Andueza San Fermingo DBHko arduradunak, aurretik Zigor Ibarzabal EHI Elkarteko arduradun pedagogikoak kideen arteko taldekatzeen balioaz hausnartzen duelarik.



Zigor IBARZABAL

EHI Elkarteko arduradun pedagogikoa

Johnson anaiek esperientzia eta ezagutza handia dute ikasketa kooperatiboaren lan-ketan eta garapenean. Asko dira gai honen inguruan lanean aritu



Garazi LARRAÑAGA

Arangoiti Ikastolako irakaslea

diren adituak, baina David eta Roger anaiek ekarpen interesgarri bat egin dute. Hainbat ikasketa kooperatibo mota aipatzen dituzte haien proposamenetan, eta oinarritzko taldeen egitu-



Lina ANDUEZA

San Fermin Ikastolako DBHko arduraduna

ratzeetan eta helburuetan desberdintzen dira beste aditu batzuek egiten dituzten ekarpenetatik.

Ikasketa-prozesuan, nor bere buuruarekin eta inguruarekin gustura eta

seguru sentitzeak berebiziko garrantzia dauka. Izan ere, gustura, seguru eta konfiantzan sentitzea ezinbestekoa izango da ikasketa-prozesuan arrakasta izateko. Egoera hori bermatzeko saiakeran, oinarrizko taldeek ekarpen handia egiten dute.

Oinarrizko taldeak iraupen luzeko taldekatzeak dira; hiru hileko bateko iraupena edo ikasturte batekoa izan dezakete, edota eskolaldi osoan zehar talde berak mantendu daitezke (betiere taldekideen arteko harreman osasuntsu eta orekatuek horretarako aukera ematen badute). Talde bateko kide izanda eta taldekatze hori eskolaldi osoan zehar luzatuko dela jakinda, taldekideekiko ardurara eta gertutasuna garatzen dira. Taldeak antolatzeako orduan, hau da, taldekideak izendatzeko orduan, hainbat irizpide baliak daitezke: talde bereko ikasleen arteko taldeak antola daitezke, edo maila bereko zein maila desberdinetako ikasleen artekoak.

Talde horien helburua ez da maila akademikoan laguntza eskaintzea bakarrik, hori baino harago doa taldekide hauen funtzioa eta rola. Taldeko ikasle guztien egoera pertsonalaren eta emozionalaren jarraipenean zentratzen da haien egitekoa, elkarren arduraren hartzean ikuspegi integral batetik. Bata bestearen bizitzaz arduratzen dira; eskola-bizitzaz (maila akademiko zein pertsonalean), aisialdiaz, familia-egoeraz... Elkarri laguntzen diote, elkar baloratzen eta elikatzen dute. Bizitzan gerta daitezkeen egoera, gatazka eta arazoei erantzuten laguntzea eta elkartasuna adieraztea izango da egiteko nagusia. Irakaslearekin, erreferentearekin, harreman zuzena izaten dute, eta ager daitezkeen egoera esanguratsuak partekatzen dira helduarekin, horretarako noizbehinka elkarrizketak izanez.

Talde horiek aldi behin elkar-tu behar dute, maiztasun jakin eta esanguratsu batekin, alegia. Ikasleek asteburuan izandako bizipenen inguruan, astean zeharreko eguneroko dinamikaren inguruan, zaletasunen inguruan, familia-egoera desberdinen inguruan... hitz egiteko baliatuko dute denbora hori. Era horretan, pertsona guztiok behar dugun ongizate mental eta fisikoa bermatu nahi da.



Aipatutako hori guztia errealitatean nola antolatzen eta egikaritzen den ikusteko, jarraian azaltzen diren esperientziak oso ondo islatzen dute talde horiek bete dezaketen funtzioa eta irakasleek proposamen teorikoak hainbat egoeratarako egokitzeko duten modua.

Zaintza-taldeak Lehen Hezkuntzan Irunberriko Arangoiti Ikastolan

Hezkuntza-ikastetxe guztiek bezala, martxoaren 16an ikastola ixteko agindua jaso genuenean, erronka berri baten aurrean ikusi genuen geure burua. Planifikazio eta erreakziorako denbora-marka guztiak hautsi genituen: ostegun arratsaldean albistea jakin, eta astelehenean ikastola online abiarazi genuen.

Oso epe motzean, adin-tarte bakoitzeko ikasketa-prozesuak (HHTik LHko 6. mailara), komunikazio- eta interakzio-moduak eta eskolaren barne-antolaketa bera modu birtualean funtzionatzen hasteko moduan prestatu genuen. Gure ikastolaren kasuan, digitalizazio-prozesuan urrats handiak emanda genituen, eta horrek hainbat lan erraztu zizkigun hasieratik. Orain arte, prozesua urratsez urrats eta ikasturtez ikasturte egiten joan gara, baina egoera honek, guztiok bezala, benetako murgiltze batera eraman gaitu; zailtasun edo erresistentzia handienak zituena ere goitik hasi eta beheraino blai eginda utzi du. Izugarritzko bultzada eman dio birusak IKTen dinamizatzailerako urteetako esfortzuari.

Era berean, ikastola online abiarazten hasi ginenean eta hasierako larrialdiei erantzun eta oinarrizko erabakiak hartu ondoren, gure ikastetxe hezkuntza-proiektuaren oinarriak direnak birtualki ere mantentzeko bideari ekin genion. Ikastola eta kooperatiba garen heinean, elkarlana eta kooperazioa zutabe garrantzitsuak dira guretzat ikastolako eragile guztien artean, ikasleen, langileen zein gurasoen artean. Bestalde, hasieratik garbi ikusi genuen ikasle guztiei laguntzeko ezinbestekoa genuela haien arteko lankidetzak. Haien laguntza behar genuen, eremu akademikoaz gain, eremu sozialean eta emozionalean ere eragiteko. Beraz, ikasleak taldeka antolatzeari ekin genion.

Funtzionatzeko hainbat modu erabiltzen ari gara, zikloen arabera. 2. zikloan (LHko 3. eta 4. mailak), ikasleak hiruko taldeetan antolatu ditugu. Helburua ikaskideen artean, maila akademikoan ez ezik, arlo emozionalean ere laguntza eskaintzea da. Taldeak Hangouts aplikazioaren bidez komunikatzen dira. Egutegian, 10:30ean elkartzen dira elkarrekin lan egiteko eta dituzten zailtasunak hitz egiteko, nahiz eta proposaturiko lana banakakoa izan. Laguntza eskaintzen diote elkarri, eta, tarte horretan, beren gauzez ere hitz egiteko aukera izaten dute.

Horrek irakasle berrantolatuta ere ekarri du. Egutegian, tutorea, ingeleseko espezialistaren eta PTaren laguntzarekin, dagokien taldearekin harremanetan jartzen da, nola eta zertaz ari diren behatzeko eta beharrez-

ESPERIENTZIAK 1: COVID-19 ETA IKASLEEN ARTEKO ELKAR-ZAINTZA

Ikasleak hiruko taldetan antolatu ditugu, eta horren helburu nagusia interakzio sozialak bermatzea eta elkarren arteko ikaskidetzaren bultzatzea da.

ko laguntza eskaintzeko. Batzuetan, tarte horretan irakasleak taldea dinamizatzen du, martxan jartzen du eta, ondoren, desagertu egiten da; mikroa eta kamara desaktibatzen ditu, baina entzuten jarraitzen du, eta, laguntzarik behar badute, berriro sartzen da. Funtzionatzeko modu horrekin, tutorea asteen behin elkartzen da talde bakoitzarekin, alderdi akademikoaz gain emozionalean nola dauden ikusteko. Antolaketa modu horren helburu nagusia interakzio sozialak bermatzea eta elkarren arteko ikaskidetzaren bultzatzea da.

3. zikloan, ez materialetara ez tresna digitaletara ohitzeko beharrik ez dute izan ikasleek. Egoera honek aldaketa gutxiago ekarri dizkie haiei. Aldaketa nagusia, ordea, talde bateko kide izateak garapen sozialerako ematen dituen aukerak galtzea izan da. Arreta beraien arteko harremanetan jarrita,

errealitatean ikasleekin integrazioan gertatzen diren egoerak online ere errepikatzen direla konturatu gara. Baina, kasu honetan, irakasleon esku hartzeko aukerak aldatu zaizkigu. Horregatik, elkarren arteko zaintza-taldeak antolatu ditugu, talde bakoitzean lau ikasle eta irakasle behatzaile bat sartuz. Egunero, ikas-saioren amaieran elkartzen dira ordu erdiz, eta, rolen banaketa egin ondoren, txantilo baten laguntzaz, eguneko balorazioa biltzen dute. Honako rol hauek proposatu dizkiegu: koordinatzailea (egin behar diren lanak zehazten eta erregistratzen ditu, galderak egiten ditu eta taldearen bozeramailea da), laguntzailea (taldeak zalantzak baditu edo norbanakoei laguntza behar badute bere laguntza eskaintzen du), denbora-kontrolatzailea (dauden jarduerak noiz eta zenbat denboraz egin behar diren kontrolatzen du) eta animatzailea (denen arteko elkarrizketa sustatzen eta giro ona jartzen saiatzen da). Gure helburu nagusia ikasleekin arteko harremanak mantentzea izan da, baina, betiere, rol desberdinen garapenean trebatuz. Hasiera batean, irakasleekin zeregina rola birgoratzea eta haien papelean aritzea ere ematea izan da. Orain, pixkanaka trebetasunak hartzen doazen heinean, irakasleon esku-hartzea gutxitzen joateko asmoa dugu. Arreta berezia jartzen ari gara *desagertzeko* edo ez integratzeko joera duten ikasle horiengan, egoera honetan anonimotasuna lortzea erraza baita beraiarentzat.

Ekintza horien ondorioz, hainbat zailtasun eta behar sumatu ditugu. Batetik, kasu batzuetan banakako esku-hartzeak eta familiekin elkarlana egin behar izan ditugu ikaslearen ongizate emozionalean laguntzeko, zaintza-taldeekin ez zelako nahikoa. Bestetik, hainbat momentutan motibazio falta eta apatiazko egoerak sumatu ditugu, eta horietan eragiteko zailtasun handiak topatzen ditugu. Eguna zein egitekoak antolatze-ko zailtasunak izan dituztenak ere antzeman ditugu, baita ekintzetan parte-hartzeko zailtasunak dituztenak ere. Kasu horietan, rolen banaketak eta taldean aritzeak asko lagundu du. Horregatik, autoerregulazioan laguntzeko asmoz, erregistro-sistema bat jarri dugu martxan, beraien ere modu objektibo batean neur dezaten.

Hori guztia aurrera eramateak, eremu guztietan ikasleekin gertuko jarraipena egiteak, irakasleon inplikazio handia eskatzen du. Familiekin ere elkarlanean ari gara, askotan gu geu beraien aholkulari eta animatzaile bihurtu gara, eta familiak, beren aldetik, gure informazio-iturri garrantzitsuena dira; horrela, ikas-tolaren eta etxearen arteko muga inoiz baino lausoagoa bihurtu da. Horrek, ordea, neke ere badakar, eta, horregatik, ezinbestekoa izan da gu ere elkar zaintzea eta talde-lanean aritzea. Egun batean rol batean eta beste batean bestean, energia-egoeraren eta egoera emozionalaren arabera elkar sostengatuz. Fikziozkoa dirudien egoera honi aurre egiteko, talde-lanak, elkarkidetzak, kooperazioak eta komunikazioak inoiz baino zentzu handiagoa hartu dutela esango genuke.

Parekoen arteko tutoretza San Fermin Ikastolako Bigarren Hezkuntzan

San Fermin Ikastolan, gainerako ikastetxeetan bezala, egun batetik bestera pasatu behar izan genuen aurrez aurreko hezkuntzak eskaintzen digun ikaslearekiko gertutasunetik urrutiko emergentziatzeko hezkuntza batera. Horrela izendatu nahi dugu, ez dugulako uste benetako online hezkuntza eskaintzen ari garenik, besteak beste, beharrezko hausnar-



ketarik edo aurretiko plangintza pedagogikorik egiteko aukerarik ere ez dugulako izan. Ez dago benetako online hezkuntza bat egiteko bermerik, komunikabideetan etengabe aipatzen ari den arren.

Gure ikastolako ikasleek konpetentzia digital zabala duten arren –ohituta gaude EKI digitalki garatzera, IKTen askotariko jardueretara...–, kalitatezko online hezkuntza egitea ez da irakaslearen azalpena bideo batean jasotzea. Hezkuntza-prozesu batek dituen elementu guztiak barneratu beharko lituzke: aniztasunaren trataera, konpetenzien eskuratzea, ikasleen garapen emozionala...

Hala ere, egoerari aurre egin behar izan zitzaien, eta hasierako momentutik oso argi izan genuen oinarriko printzipio bat: lanak bideratzea, kalifikatzea edo ikasmaterialen euskarriak moldatzea berehalako beharrak ziren, baina garrantzitsuena ikasleen jarraipen emozionala egitea izango zen. Ikasleen aniztasuna familien aniztasuna ere bada. Nola lagundu etxean dagoenari denbora antolatzen, zailtasunei eta beldurrei aurre egiten?

Ildo horretatik, tutoreak orain arte egiten ari diren lana ezinbestekoa izaten ari da. Aurreko normaltasun-egoeran izan den bezala, bestalde. Baina berehala sumatu genuen jarraipen hori indartzeko tresna gehiago beharko genituela. San Fermin Ikastolan, parekoen arteko elkarlana bultzatzeko kultura handia dugu: maila bereko tutoreek taldeka lan egiten dute, arlo bereko irakasleek ere bai; ikasle laguntzaileek taldeka dihardute bizikidetzaren zaintzan, proiektu gehienak taldeka garatzeko ohitura dugu... Bada, gurean hain hedaturik dagoen talde-lanaren (auzolanaren) kultura horretatik abiatuta, DBHn ere bizitzen ari garen egoera berezi honetarako talde kooperatiboak martxan jartzea erabaki genuen.

Hasieratik adierazi genien ikasleei zein ziren “Parekoen arteko tutoretza” egitasmoaren helburuak: egoera berri honetan elkarri laguntzeko sarea osatzea, antolatzen laguntzea, zalan-tzak partekatzea, elkar zaintzeko bide berriak zabaltzea... Izan ere, ikasleei



ez zaie, ohiko prozeduran, lanak taldeka egitea eskatu.

Egitasmoa martxan jarri aurretik, talde heterogeneoak sortu genituen. Hein handi batean, lagun edo lankide hurbilenekin osatzen saiatu ginen, horrela bideragarriagoak izango zirela iruditu zitzaigulako. Gainera, “oreka akademiko” bat bilatu nahi genuen, hau da, normalean baino homogeenagoak ziren taldeak. Ikasleen taldekatze egokia egitea beti da lan zaila, baina, esperientziak maiz erakutsi digunez, arrakastaren giltza ere bada.

Ekimen honen eragina neurtzeko, galdeketa egin genien ikasleei ere, eta gehienek argiki adierazi digute kideekin batera hobeto ikasten dela; errazago egiten zaiela lana aurrera eramatea. Konfiantza-giroa sortzen da beraien artean, eta babes-sare bat ere badela sentitu dute. Baina, era berean, taldekatzeak ongi pentsatu behar direla adierazi digute. Irakasleriari dagokionez, prestakuntza egoki baten beharra nabarmendu dute, taldeak benetan kooperatiboak izan daitezten eta ikasle guztiek elkarrekin ikasteko aukera izan dezaten.

Behatu dugunaren arabera, itxialdiaren lehenengo fasean benetan erabilgarria izan zitzaizen egitura hori. Dena berria zen orduan, informazioa sakabanatuta zegoen, erritmoak desberdinak ziren. Bai ikasleentzat eta bai familientzat ere oinarri garrantzitsua izan ziren talde hauek.

Bigarren fasean, erabilera aldatu egin dela ikusi dugu, eta, talde batzuk oso aktibo mantentzen diren arren,

beste batzuk ez dira horrenbeste elkartzen. Neurria hartu diote lan-prozedura berriari, guk ere neurria hartu diogun bezala. Orain, lan egiteko prozedura eta informazio guztia zentralizatua dute gune batean, tutoretza-saioak sistematizatuago daude, orokorrean denak gara autonomoagoak orain. Era berean, jakin badakigu bigarren fase honetan gertatzen ari diren beste aldagai batzuk ere kontuan hartu behar ditugula, besteak beste, nekea eta motibazio falta ere behatzen hasiak baikara hainbat ikaslerengan.

Egoera berri eta aldakor horretatik abiatuta, bi astez behin Sormen Astea antolatzeari ekin diogu. Ekimen horren bitartez, ikasleek, mailaka antolatuz, hainbat proposamen garatuko dituzte, eta aurretik deskribatutako talde kooperatiboak baliatuko ditugu horretarako ere. Helburua, diziplina artean, zehar-konpetentziak ahalik eta modurik ludikoenean lantzea izango da.

Beste aldagai batzuk ere kontuan hartu behar ditugu, besteak beste, nekea eta motibazio falta ere behatzen hasiak baikara hainbat ikaslerengan.

EKARPENAK 1

GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURUAK ETA AGENDA 2030 ESKOLETAN

Konsue Salinas: “Koronabirusaren krisiagatik sortutako egoera berriak lantzeko materiala prestatu dugu”

Koronabirusak eragindako pandemiaren ondorioz argi ikusi da ingurumenak, naturak eta animaliek arnasa hartu dutela. Bada zer hausnartua, oro har, gizar-tean eta baita hezkuntza esparruan ere. Zergatik, ordea, landu hori eskolan? Zertarako? Nola eta zein baliabiderekin? Galdera horiek erantzuteko prestatuta dago Konsue Salinas Haur Hezkuntzako irakaslea eta Iruñeko Irakasleen Laguntzarako Zentroko (ILZ) aholkularia. Alde batetik, Agenda 2030 hezkuntza sisteman ezartzeko dauden argudioak azaltzen ditu, eta bestetik, krisi egoera honetan irakasleei lan hori erraztuko dien *Hendere eta koronabirusaren krisia* materiala aurkezten du.



Zer lotura du Agenda 2030ak hezkuntza sistemarekin eta, zehazkiago esanda, irakasleekin?

2015eko irailean Nazio Batuen Batzar Nagusiak dokumentu bat onartu zuen: *Gure mundua eraldatzen: Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda*. GJH Garapen Jasangarrirako 17 Helburuek eta agenda horretan sartutako 169 jomugek argi adierazten dute gizateriak aurrean duen erronka zein handia den.

Irakasleok eragile garrantzitsuak gara GJHen eta Agenda 2030en helburuak lortze bidean. Eraldaketa sozialerako eragile garen heinean, eskolaren funtzioa zein izan behar den hausnartu behar dugu eta agenda hori garatzen lagundu behar dugu, hori

baitagokigu hiritar aktibo eta parte-hartzaile gisa. Zentzu honetan, 4. 7. helburuak onartzen du irakasleek eta hezkuntzak funtsezko zeregina dutela giza garapenak eta planetaren garapenak behar duten jasangarritasun xedeak lortzeko garaian. Horrela, herrialde guztiei dei egiten die irakasleek Agenda 2030 ezarri eta garatu dezaten: 2030 bitartean ikasle guztiek garapen jasangarria bultzatzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta trebetasunak lortu ditzaten bermatu behar da, besteak beste garapen jasangarrirako hezkuntzaren bitartez eta bizi estilo jasangarrien bitartez. Horrekin batera, giza eskubideak, genero berdintasuna, indarkeriarik gabeko bakearen kultura, munduko hiritarrak

eta kultur aniztasuna eta garapen jasangarrira egokitutako kulturaren ekarpena lantzea aipatzen dira.

Nola definituko zenuke Garapenerako Hezkuntza (GH)? Zer da GH?


GH ikuspegi pedagogiko bat da, hezkuntza ulertzeko modu bat, zeinak gelan egunero garatzen diren hezkuntza prozesu guztiei laguntzen dien. Sarean adituen definizio anitz aurki daitezke. Niri hiru ideia azpimarratzea gustatzen zait: GHk ikasleei, irakasleei, familiei eta komunitate osoari munduan beste errealitate batzuk badirela erakusten die eta horren inguruan sentibilizatzen ditu. Ezagutza horrek kontzientzia kritikoa edukitzea ahalbidetzen du, eta horrek ekitea eta eraldaketan eragileak izatea dakar (Salinas, 2014:67).

Garrantzitsua da hezkuntza arloari dagokion hizkuntza komun hau erabiltzea GHren esanahia eta curriculumen duen presentzia ongi ulertzeko. Izatez, konpetentzia sozialak eta hiritarrak GHren erreferentetako batzuk dira curriculumean. Gainera, konpetentzia horren idazketa GHren jakinduria historikoan eta printzipioetan inspiratuta dago.

Zentzu honetan, zein da gaur egun ikastetxeetan dagoen egoera? Zeren hutsunea sumatzen duzu?

2014an argitaratu nuen liburuan — *Acercando la Educación para el desarrollo a la escuela. Una mirada internacional, una mirada local* (docentesparaeldesarrollo.blogspot.com)— horri buruzko ikerketen emaitzak azaldu nituen. Nahiz eta irakasle asko GHren ikuspegi horretatik aritu, oraindik ezezagutza handia dago GHren ezarpena babesten eta legitimatzen duen marko teorikoari, curricularrari eta araudiari dagokionez. Egia da azken urteetan asko aurreratu dela irakasle askoren konpromisoari esker eta ikuspegi pedagogiko honetako heziketa-proposamen askotarikoak sortu direlako. Ikastetxe batetik bestera alde handia dago GHren ezarpenari dagokionez, eta baita ikastetxe jakin baten barruan ere. Normalean hezkuntza sistemarekin zerikusirik ez duen eta boluntarioa den zerbait

4.7. helburua: irakasleen zeregina Agenda 2030en ezarpenean

	<p style="text-align: center;">Erreferentziatzeko dokumentu guztietan dago!</p> <p>2030 bitartean ikasle guztiek garapen jasangarriak bultzatzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta trebetasunak lortu ditzaten bermatu behar da, besteak beste garapen jasangarriko hezkuntzaren bitartez eta bizi estilo jasangarrien bitartez. Horrekin batera, giza eskubideak, genero berdintasuna, indarkeriak gabeko bakearen kultura, munduko hiritarrak eta kultur aniztasuna eta garapen jasangarrira egokitutako kulturaren ekarpena.</p> <p style="text-align: right;">(NBB, 2015:20)</p>
---	--

P. Cifuentes

bezala ikusten da oraindik ere.

Nire ustez, beharrezkoa da heziketa-ibilbide berritzaileak ezartzea irakasle guztiengana iristeko. Azken batean, denbora kontua da. Agenda 2030 sinatu duten herrialdeek hezkuntza sisteman GJHk GHren bitartez ezartzeko konpromisoa hartu dute. Horregatik ikusten dut ilusioz Nafarroako Gobernuak bere logoan Agenda 2030 txertatu izana, erdian jarri du eta ikusarazi egin du, nahiz eta sentibilizazio kanpaina on baten falta sumatu logo horrek zer esan nahi duen eta zertara konprometitzen gaituen azaltzeko, eta batez ere, irakasleok eraldaketako eragile gisa dugun funtzioa argitzeko.

Zer egin dezakete irakasleek?

Irakasleok funtsezko zeregina daukagu GJHk eta Agenda 2030 lortzeko bidean. Eraldaketa sozialeko agente gisa, eskolaren zeregina zein den hausnartzea dagokigu eta agenda hori garatzeko ekitea, hiritar aktibo eta parte-hartzaile garen heinean.

2018an hezkuntza arloarentzat interesgarriak diren dokumentu ugari argitaratu ziren. Garrantzitsua da horiek ezagutzea. Guztietan sartu da GJHn 4.7. helburua (lehen aipatutakoa), eta beraz, irakasleentzat kontsultarako ezinbesteko erreferentzia dira dokumentu horiek. Arlo curricularrean, konpetentzietan eta ebaluazioan ezartzen diren helburuak ulertzeko eta lortzeko balio dute.

Nire proposamena zera da: dokumentu horiek irakurri irakasleek euren ezagutza zientifiko-didaktikoa eguneratzea eta irakurketa pedago-

gikoko saioen bitartez lankideekin partekatzea.

Zein dira eskoletan GJHk zergatik eta zertarako landu behar diren ulertzen laguntzen duten dokumentu interesgarri horiek?

Gaurkotasan handiena dutenen artean UNESCOren bat azpimarratuko nuke: *Hezkuntza berraztertzea: mundu osoko ongia lortzeko bidea?* Dokumentu honek mahai gainean jartzen duen lehen hausnarketa honako hau da: zein izan behar da hezkuntzaren helburua gaur egungo eraldaketa sozialaren testuinguruan. Idatziak UNESCOren bereizgarri den hezkuntzaren eta garapenaren ikuspegi humanista mantentzen du. Zentzu honetan, Gema Celoriok dioen bezala, beharrezkoa da Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak “bere egiteko pedagogikoaren erdigunean jartzea pertsonen eta planetaren bizitzan jasangarritasuna”

Irakasleok eragile garrantzitsuak gara Garapen Jasangarriaren Helbururen eta Agenda 2030en helburuak lortze bidean eraldaketa sozialerako eragile garen heinean.

EKARPENAK 1: GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURUAK ETA AGENDA 2030

(Celorio, 2017:105). Hau da, inklusioa, arrazakeriaren kontrako borroka, genero berdintasuna eta abar aintzat hartuta osatu behar da curriculuma, fokoa pertsona guztien garapen integralean jarrita, ikuspegi kritikotik eta eraldatzailetik. NBE Nazio Batuen Erakundeak dioen bezala, inor atzean utzi gabe.

Beste dokumentu aipagarri bat honako hau da: *Europako Batasuneko Kontseiluaren gomendioa Etengabe-ko ikaskuntzarako oinarrizko gaitasunen inguruan (2018)*. Dokumentu honetan zera jasotzen da: GJHk garatzen eta bultzatzen jarraitzeko inizatibak babestu behar direla, eta bazkide diren estatuak GJHk hezkuntzan, formazioan eta ikaskuntzan ezarri behar dituztela (Europako Kontseilua, 2018: 189).

Dokumentu honetan konpetentzia sozialei eta zibikoei garrantzi handiagoa ematen zaie eta ezinbestekotzat hartzen dira “aldaketara egokitzeko gaitasuna eta erresilientzia ziurtatzeko” (Europako Kontseilua, 2018: 189). Gainera, garapen jasangarria hiritartasun globalaren zatitzat hartzen da, ingurumenaren babesetik haratago doa, etorkizun jasangarria eraikitzeko norbanako bakoitzak duen erantzukizuna gehitzen du.

Erreferentziatzko beste dokumentu bat ELGA Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundearen *The future of education and skills/ Education 2030* da. Hemen hiru gai interesgarria planteatzen dira:

1- Hezkuntzaren xedea birdefinitzeko asmoa.

2- Ikaslearen agentzia bultzatzeko

beharra (pertsona batek munduan ekiteko duen gaitasuna).

3- Hezkuntza curriculuma berdiseinatzeko beharra.

Hezkuntzaren helburua ongizate (wellbeing) eta bizitza-kalitatearen terminoetan berdefinitu behar dela uste da, hau da, hezkuntza helburuek positiboki eragin behar dute ikaslearen eta gizartearen ongizatean ikasleak eraldaketaren eragileak direlako eta eragin positiboa eduki dezaketelako beren egungo eta etorkizuneko inguruan.

Azkenik, aipatu nahi dut Hezkuntza zibiko eta hiritarraren Nazioarteko Ikerlanean (*International Civic and Citizenship Education Study*) ikastetxeen eginkizuna ebaluatzen dela ikasleak gizarteko hiritar izateko, eta honako adierazle hauek txertatu dira: GJHn maila hezkuntza politika nazionalen eta ikasketan planen maila guztietan, irakasleen formazioa eta ikasleen ebaluazioa”.

Urrutira joan gabe, PISAk 2018an argitaratutako txosten bat dago: *Konpetentzia Globalaren Markoa. Pisa ikerketa. Gure gazteak mundu inklusibo eta jasangarrirako prestatzen*. Konpetentzia Globala berrikuntza gisa sartu den kontzeptua da: “Konpetentzia Globala galdera lokalak, globalak eta kulturartekoak aztertze gaitasuna da beste pertsonen ikuspuntuak eta munduko ikuskerak ulertzeko eta balioesteko, kultura desberdinetako pertsonekin elkarrekintza irekietan, egokietan eta eraginkorretan parte hartzeko, eta ongizate kolektiboaren eta garapen jasangarriaren alde ekiteko” (MECD, 2018:94).

Dokumentu horretan irakasleen prestakuntzari buruzko informazio zehatza agertzen da. Irakasleen protagonismoa funtsezkoa da ikasleek aipatutako konpetentziak eskuratzeko, eta ondorioz, ezinbestekoa da irakasleek formatzeko eta berritzeko aukera izatea, eta horrekin batera beste arlo batzuk ere lantzea baldin eta herritarren konpetentziak eta GJHk ikaste-txeetan landu nahi badira.

Azkenik, komunikabideetan agertutako berrien arabera, Espainiako estatuaren Hezkuntza Lege berriak GJHn bitartez Agenda 2030 garatzeko estrategien beharra aipatzen du.

Dokumentu teorikoetatik errealitate praktikora jaitsita, gai hau lantzeko material didaktikoa sortzen ibili zara azkenaldi honetan: *Hendere eta Koronabirusaren krisia* deitzen da proiektua. Zer-nolako materiala da?

GJHk eta Agenda 2030 lantzeko lagungarria den material didaktikoa bat da, eta pairatzen ari garen koronabirusaren krisi honekin erabat konektatuta dago. Haur, familia eta irakasleei baliabide bat eskaintzeko egin da, herritartasun globalerako hezkuntzaren ikuspuntutik modu egokian landu ditzaten koronabirusaren krisia dela-eta sortu diren egoera berriak.

Horrekin batera, gogoeta piztu nahi du norberaren eta gizartearen jokabideak aldatu beharri buruz eta plane-ta zaindu beharri buruz, GJHk eta Agenda 2030 ere erreferentzia izanik. Gaiak “garrantzitsuak” direla eta gaitasun zibiko eta sozialaren bidez, besteak beste, ezinbestekoak direla eskolan lantzeko.

Zein adinekoentzat dago pentsatua?

Lehen esan bezala, haur, familia eta irakasleei baliabide bat eskaintzeko egin da. Berez 3-12 urte bitarteko haurrentzat prestatu da, baina Hendereren ipuinak irakurtzeko eta gozatzeko adinik ez dago. Jorrazten diren gaiak gaurkotasunezkoak dira, eta beharrezkoa da mahai gainean jartzea, hiritartasuna globala izanik, gizateriaren beraren biziraupenari begira ditugun erronka handiak agerian jartzea, alegia.

Henderrek antza handia du Mafaldarekin, hausnarketa egitera



gonbidatzen gaitu beti. Baina ez bakarrik hausnarketa egitera, baita konpromisoa eta inizatiba hartzeko zenbait egoera aldatzera ere. Beraz, ipuinak edonorentzako modukoak dira, gazte, heldu nahiz adineko, eta irakurketa partekatzen bada... hobe!

Ez zara ibili bakarrik materiala sortzen, taldelana izan da.

Bai, hala da. Lan hau AECID Garapenerako Lankidetzako Espainiako Agentziak eta Hezkuntza Ministerioak duten Garapeneraren Aldeko Irakasleak izeneko proiektuaren barnean egin da, Garapenerako Irakasleak Sareko irakasle talde horren esku zabaltasunari esker.

Zazpi irakasle aritu gara: Ana Isabel Simón Cornago eta biok Nafarroakoak gara. Mercedes Laorga Lucas eta María Dolores Vidal Silva Madrilekoak dira; José Ramón Núñez Santos Asturiasekoak da; eta Mónica Sánchez Sandoval eta Montserrak Alonso Álvarez Leonekoak dira (azken hori irudigilea da).

Duela 2 urte *Hendere eta Hezkuntzarako eskubidea* argitalpena egin genuen AECIDek eta MEFPe bultzatuta. Beraz harremana eta lan egiteko egitura bagenuen. Aste Santuko oporrak hartu baino bi egun lehenago Montse irudigilea infografia batzuk sortzen hasi zen... 'Zergatik ez dugu zerbaite egiten?' hasi ginen gure artean galdezka, eta ez genuen gehiegi pentsatu... Esan eta lanari ekin genion!

Zertan datza materiala? Zein da muina?

Osoz bost kapitulu ditu eta bakoitzean ipuin bat eta bost motatako lan proposamenak edo jarduerak daude, bakoitza ikuspegi desberdin batekin. Ipuinak konfinamendu garaian kokatuta daude eta Henderek, ipuin bakoitzean, bere inguruan gertatzen ari dena kontatzen du: inkomunikazioaldi honetan bizi izaten ari dena, haren zalantzak, hausnarketak eta abar.

Hauek dira ipuinak: **Hendere etxean geratu da; Hendere ikas-kideekin jarri da harremanetan; Hendere munduan dituen lagunekin jarri da harremanetan; Hendere arduratsua eta solidarioa da** eta **Hendere eta munduko berriak**.

Ipuinak irakurri ondoren lan proposamenak planteatzen dira. Zer-nola-ko jarduerak dira?

Ipuin bakoitzak sei jarduerara mota proposatzen ditu funtsezko gaitasunak eta GJHk (17 helburuak) lantzeko.

1- Kontaidazu: hitzeko jarduerak eta gogoetak familia guztiarentzat.

2- Hendereren desafioa: Henderek desafio bat du zuzetzat. Ausartuko zara?

3- Lanari lotu: hiru, bi, bat, ekin! Sortzeko unea da hau!

4- Emozioak: zer sentitzen ari zara?

5- Hartu inizatiba: konpromisoa hartzeko garaia da.

6- Partekatu esperientziak: elkarrekin dibertigarriagoa da.

Non aurki daiteke materiala?

Blog bat sortu dugu eta bertan aurki daitezke ipuinak eta proposamen guztiak: **hendere.blogspot.com**. Ahalik eta gehien zabaltzeko egin da materiala, irakasleei Garapenerako Hezkuntza hobeki landu dezaten eta GJHk eta Agenda 2030 zabal dadin. Lanaren kopiak egiteko baimena du, betiere iturria eta egileak aipatuz eta irabazi asmorik gabe erabiltzen bada: Creative Commons da lizentzia.

Aurreko materiala ez bezala, oraingo euskaraz ere argitaratu duzue.

Oso argi nuen berriro parte hartzen baldin banuen material bat sortzen, euskarazko edizioa ere egitea lortu behar genuela. Zorionez, Fernando Reyri proposatu nionean euskarara itzultzea, ez zuen zalantzarik izan eta baietz esan zidan. Fernando Rey Escalera eta Uxue Rey Gorraiz izan dira obraren itzultzaileak. Argitalpen honen koordinazioa, maketazioa eta edizioaren koordinaketaz neu arduratu naiz.

Espero dugu interesgarria izatea irakasleentzat. Munduko haur, familia eta irakasle guztiengan pentsatuz egin dugu bihotzez, haiek gogoan izanda. Eta baita Joxe Mari Auzmendi ere. Elkarrizketa hau baliatu nahi dut Joxe Mari Auzmendi nire omenaldi txikia egiteko: **Joxe Mari, nonnahi zaudela ere, bihotzez**.

Erreferentzia bibliografikoak

- CELORIO DIAZ, G. (2017). *Educación crítica y transformadora. Marco teórico-pedagógico para integrar la soberanía alimentaria con enfoque de género en los centros de Secundaria*. Bilbao. Hegoa; VSF Justicia Alimentaria Global. http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/publicaciones/343/ED_critica_y_transformadora.pdf?1507288425.

- CONSEJO DE EUROPA (2018). *Recomendación del Consejo de la Unión Europea de 22 de mayo de 2018 relativa a las competencias clave para el aprendizaje permanente*. [https://eurlex.europa.eu/legalcontent/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32018H0604\(01\)&from=ES](https://eurlex.europa.eu/legalcontent/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32018H0604(01)&from=ES).

- MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE (2018). *Marco de Competencia Global. Estudio PISA. Preparar a nuestros jóvenes para un mundo inclusivo y sostenible*. PISA 2018. <https://sede.educacion.gob.es/publiventa/marco-de-competencia-global-estudio-pisa-preparar-a-nuestros-jovenes-para-un-mundo-inclusivo-y-sostenible-pisa-2018/educacion-estadisticas-espana/22445>.

- ORGANIZACIÓN NACIONES UNIDAS (2015). *Transformar nuestro mundo: la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible*. https://unctad.org/meetings/es/SessionalDocuments/ares70d1_es.pdf

- ORGANISATION FOR ECONOMIC COOPERATION AND DEVELOPMENT (OECD) (2018). *The future of education and skills/ Education 2030*. [https://www.oecd.org/education/2030/E2030%20Position%20Paper%20\(05.04.2018\).pdf](https://www.oecd.org/education/2030/E2030%20Position%20Paper%20(05.04.2018).pdf)

- SALINAS, K. (2014). *Acercando la Educación para el Desarrollo a la escuela. Una mirada internacional, una mirada local*. Blog docentesparaeldesarrollo <https://drive.google.com/file/d/1N0uRkan1sSqRgTc342X1viwm-QeDX8LS/view>.

- UNESCO (2015). *Hezkuntza berraztertzea: mundu osoko ongia lortzeko bidea?* <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000244209>.

EKARPENAK 2

ADIMEN-GAITASUN HANDIAK ETA EMAKUMEAK

Potentzialitatea ez dezagun patologia bilakatu

Hezkuntza-munduan pil-pilean dagoen gaia dugu Adimen Gaitasun Handiak (AGH hemendik aurrera) dituzten ikasleena. Hala ere, orain arte ikusarazi ez den errealitate bat partekatzeratorkizue: AGHk dituzten emakumeak eta elikadura-jokabidearen nahasmendua. Ondorengo lerroetan, AGHko ikasleen inguruan eta horrek emakumeengan izan ditzakeen ondorioetan sakontzera gonbidatzen zaituztet.



Alazne GOIKOETXEA

HHko hezitzailea, psikomotrizista, arreta goiztiarrean aditua eta Psikologia Graduko ikaslea

Hasteko, esan behar da AGHk dituzten ikasleen prebalentzia % 3koa dela. Hala ere, gure ikasgeletan lortzen ditugun datuak oso bestelakoak dira. EAEn, 2018-2019 ikasturtean, AGHk dituzten ikasleen ehunekoa % 0,2koa zen soilik. Nafarroan, berriz, 2017-2018 ikasturteko datuen arabera, AGHko ikasleen ehunekoa % 0,36 zen soilik. Horrez gain, EAEn, mutilen kasuak neskenak baino

ugariagoak dira: % 70,9 eta % 29,1, hurrenez hurren (Etxebarria, et.al 2019). Halaber, Nafarroan antzeko ehunekoak ikusten dira: % 70 eta % 30. Hau da, EAEn detektatutako kasuen % 0,058 soilik dira emakumeak, eta Nafarroan % 0,108; beraz, emakumeen ehuneko handi batek ihes egiten digu. Zergatik ote?

Esan behar da jada EAEn kaleratu berri dela *Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko plana (2019-2022)*. Aurrerapauso ikaragarria da, ikasle horien detekzioa erraztuko duelako. Izan ere, ikasle horiek detektatzeko pauso argiak zehazten ditu, eta ikasle guztiei egiten zaien galdetegi batetik abiatzen da; beraz, hurrengo urteetan kasuek gora egingo dutela aurreikusten da.

Halaber, Nafarroako Foru Erkidegoan, AGHk dituzten ikasleen hezkuntza-premiak ebaluatzeko prozesua argitaratu zen 2009an, eta aurki publikatu behar da detekzio goiztiarrerako protokoloa.

Azpimarratu behar da ikasle horien detekzioa BETI (eta hau argi geratzea nahiko nuke) egiten dela hezkuntza-erantzun bat emateko asmoz. Hau da, ikasle batek AGH dituela ondorioztatzen bada, ibilbidearen abiapuntutzat hartu behar da hori; ez du inoiz etiketa huts izan behar, baizik eta abiapuntu bat BETI. Izan ere, funtsezkoa da profil mota guztietan ikasle horiek goiz identifikatzea, haien gaitasunak osorik gartzeko

eta asperdura, errendimendu txikia, autokontzeptu txikia eta ikasteko motibazio urria saihesteko (Pfeiffer, 2009).

Zergatik pasatzen dira oharkabeen AGHk dituzten emakumeak?

Beraz, hori guztia azalduta, ezinbestekoa da detekzioaren garrantziaz jabetzea, eta berebiziko arreta jarri behar dugu AGHk dituzten emakumeengan; izan ere, askotan horiek oharkabeen pasatzen dira eskola-eta-patik. Arestian aipaturiko estatistikei begiratzea besterik ez dugu AGHk dituzten ikasleen gehiengoa detektatu gabe dagoela konturatzeko, eta zer esanik ez AGHko emakumeen kasuan. Horiek ez detektatzearen arrazoa, oinarrian, femenino izatearen genero-rolekin eta estereotipoekin dago lotuta zuzenean. Ondorengo lerroetan zertzelada batzuk ematen saiatuko naiz, gai hau bistaratzeko aldera.

AGHk dituzten emakumeek, askotan, nahita apaltzen dute errendimendu akademikoa. Arrazoi ugari daude horretarako, besteak beste: gizartean baztertuak izan daitezkeen ustea, haien feminitatea edo normaltasuna ezbaian jarriko ote den kezka, sexu-estereotipoei eta genero-rolen buruzko arau sozialak hausteko beldurra (Barberá eta Mayor, 1987), atseginak izateko eta arrarotzat ez hartzeko (Benito, 1990). Hau da, funtsean, ingurura egokitzeko. Horrela, haien talentua ezkututzen dute, eta benetan dutena baino gaitasun eta adimen txikiagoa erakusten dute. Horrek, askotan, “nork bere buruaz dituen espektatibak betetzera?” garamatza, Pigmalion efektura, alegia.

Fox eta Zimmermanen arabera (1985), neskek hartzen duten desagertzeko eta disimulatzeko joera (autore batzuek “Mari Errauskin sindromea” deitzen dute) areagotu egiten da nerabezarora iristen diren heinean; izan ere, une horretan haientzat beharrezkoena da gizartearen onarpena.

Horrek guztiak erakusten digu arestian emandako zifretan (% 70,9 mutil eta % 29,1 neska) genero-alborapen nabarmena dagoela, eta, ikusten da



AGHk dituzten emakumeen artean badagoela gainerakoekin mimetizatze joera bat.

Bestalde, AGHko emakumeek konfiantza gutxiago izan ohi dute beren buruan, beren lorpenak gutxiesten dituzte, mendekotasun handiagoa eta kanpo-kontrol handiagoa dute. Hori dela eta, haien kanpo-irudia pertsona bikain eta arrakastatu batena da, baina beren ahaleginez kanpo dauden faktoreei esleitzen diete arrakasta hori. Gainera, arrakasta hori ez dutela merezi edo zoriz lortutakoa dela uste dute, eta, horren ondorioz, errudun sentitzen dira gaitasun handia erakutsi dutelako. Funtsean, emakumeengan sortzen den autoestimu-sentimendua oso txikia izaten da, adituek “iruzurgilearen sindrome” deritzotena, alegia.

Horrez gain, AGHk dituzten emakumeengan antzemandako nortasun-ezaugarria dugu “perfekzionismoa”. Neska “bikain” askok uste dute ezin hobeak izan behar dutela egiten duten guztian. Beste gauza batzuen artean, perfekzionismo horrek errealak ez diren helburuak jartzera eramaten ditu, eta haien ikasketak modu ez erreal batean planifikatzera ere eramaten ditu, hau da, haien gaitasunen gainetik dauden planifikazioetara eramanez.

AGHk dituzten emakumeak eta elikadura-jokabidearen nahasmenduak

Aipatu bezala, genero-rolen arteko gatazkak sortzen dira ikasle horien-

gan, beren gaitasunak ezkutatzearen ondorioz. Hori dela eta, gorputzaren irudiarekiko asegabetasuna eta asegabetasun emozionala jasaten dute. Horrek gorputzaren gaineko kontrola lortu nahi izatea dakar, eta elikadura-jokabidearekin lotutako sintomak eragitea (Lovejoy, 2001).

Hori guztia aipatu eta jada detekzioaren garrantziaz solas egin ondoren, AGHko emakumeen detekzioaren garrantzian sakondu nahiko nuke. Izan ere, horiek ez detektatzeak elikadura-jokabide nahasmenduak ekar ditzake luzarora.

Oraindik esparru hori gutxi landu bada ere, orriotara bi ikerketa ekarriko ditut. Lehenengoa, López, Stahl eta Tchanturia (2010) egileena ikerketa, hipotesi esanguratsu batetik abiatzen dena: anorexia nerbiosoa duten pertsonen gainerako biztanleek baino puntuazio altuagoak ematen dituzte ongi balidatutako testetan (National Adult Reading Test eta Wechslerren inteligentzia-eskalak). Aipatutako autoreek lortutako ondorioak adierazgarriak dira erabat. Esaterako, anorexia nerbiosoa duten pertsonen adimen-koefizientea altua izaten da orokorrean. Hortaz, horien adimen-koefizientea gainerako biztanleen batezbestekoaren berdina edo altuagoa izan ohi da.

Duela gutxi argitaratutako ikerketa bat da bigarrena, eta pisuzko ekarpena egin dio gai honi. Hernangómezek (2020) ere lotuta ezartzen du AGHren eta elikadura-jokabidearen nahasmenduaren artean. Haren hitzetan, AGHk dituen pertsona bat zaugarri

EKARPENAK 2: ADIMEN-GAITASUN HANDIAK ETA EMAKUMEAK



bihurtzen da bere beharrei erantzuteko prestatu gabe dagoen inguru batean dagoenean. Aldiz, inguruarekin dituen elkarrekintza horiek modu eraikitzailean erabiliz gero, eragin positiboa izan dezake horrek elikadura-nahasmenduen prebentzioan. Hori lortzeko, garapenaren arlo sozioafektiboan jarri behar da arreta, sormenaren sustapenean eta balioespenean. Horrez gain, beharrezkoa izango da heziketa-giro estimulagarriak sortzea, horrela, ikasketa-prozesua lehenesten dutenak emaitzaren gainetik.

Azpimarratu behar da AGHk, berez, babes-faktore izan beharko lukeela arrisku-faktore baino gehiago. Izan ere, prozesatzeko eta egokitze gaitasunaren aldetik gaituago daude pertsona horiek, baina, inguruarekin duten elkarrekintzaren ondorioz (edo elkarrekintza ezaren ondorioz), potentziala zena arrisku-faktore edo zaurgarri bihurtzen da (Martin, Burns eta Schonlau, 2010). Zaurgarritasuna, gainera, ez da estatikoa, aldatuz joan baitaiteke pertsonaren bizi-zikloan zehar, eta hainbat modutan azaldu daiteke hori. Zentzu horretan, arreta berezia jarri behar da nerabezaroan, anorexia nerbioaren intzidentzia handiena garai horretan gertatzen baita. Aro horretan aldaketa fisikoak, psikologikoak, sozialak eta emozionalak pairatzen baitituzte nerabeek, eta AGHkin lotura zuzena dute horiek (Moon eta Dixon, 2006).

Horrez gain, AGHko ikasleengan

asinkroniak gertatzen dira, eta horrek ere eragina du, egoera bakoitzari ongi erantzuten ez bazaio. Asinkronia kognitibo eta emozionalak du garrantzi handiena, eta horrek du lotura gehien elikadura-jokabidearen nahasmenduarekin. Asinkronia hori gertatzen denean, haurrek haien adin kronologikoari dagokion maila emozionala izaten dute, baina maila kognitiboa altuagoa izan ohi da. Kasu horietan, prozesu emozionalen hiperrazionalizazio bat egiten dute, eta autokritika handia izan ohi dute bizitzen dituzten erantzun emozionalen aurrean. Beraz, inguruak ulertu behar du, nahiz eta kognitiboki helduagoak diren, emozionalki ez daudela maila horretan, eta, beraz, hori errespetatu behar da, eta ulertu eta lagundu egin behar zaie emozioen kudeaketan. Hori egin ezean, haurra haren gainetik dauden espektatibetara egokitzten saiatzea izan daiteke emaitza. Horrela, haurrak bere emozioak eta sententzioak arbuia ditzake (kontzientzia emozionalaren absentsia), edo bere erantzun emozionala ohi baino gehiago handitu dezake, bizi duen ezinegonari aurre egiteko. Aipaturiko emozioak kudeatzeko bi zailtasun horiek lotura estua dute elikadura-portaeraren nahasmenduekin (Hernangómez, 2018). Beraz, eskola-eremuan ere, ezaugarri sozioafektiboak eman behar zaie garrantzia, konpetentzien eta lorpen-mailaren aurretik. Ere horretan urritasun bat izateak nerabezaroan konpetentzioak sortzea eragin dezake, eta elikadura-portaeraren nahasmendua garatzeko arriskua handitu.

Elikadura-portaeraren nahasmendua garatzeko arriskuari buruz, esan behar da ikasle horien eskola-bizitzan ikusgai jartzen diren hiru ezaugarri nagusi daudela, hala nola:

- Akademikoki ongi egokituta egon arren, ondoez psikologikoa ezkutatzea.

- Perfekzionismoa eta autoexijentzia.

- Genero-baldintza.

Ikasle hauek barruan dituzten sintomak ezkutatzeko joera izaten dute (kontzienteki edo ez), eta ondoez emozionalaren oinarria izan daiteke hori. Elikadura-portaeraren

nahasmenduak ondoez emozionala adierazten du askotan. Pertsona horien kanpoko itxura egoki mantentzen bada ere, seguruenik ezintasun bat izan dute pairatzen dituzten sintomen berri emateko. Beraz, irakasle eta gurasook sintoma horietaz (antsietatea eta isolamendua) ohartzen saiatu behar dugu.

Emozioak arautzeko zailtasunak ere agertu ohi dira; gainera, oinarriko erregulazio-estrategia bat emozio horiek saihestea izaten da. Hortaz, emozioak elikadura-sintomez ordezkatzeko dituzte, eta nahiz eta sententzio somatiko gogorrak bizi, beste esperientzia desatsegin batzuk saihesten laguntzen die jarrera horrek (Bell, Coulthard eta Wildbur, 2017).

Elikadura-portaeraren nahasmenduetako oinarriko aldagai zaurgarria da perfekzionismoa, eta, era berean, arestian aipatu bezala, AGHk dituzten pertsonen ohiko ezaugarri bat ere izan ohi da. Perfekzioa lortzeko egindako esfortzuan autoexijentzia-maila handia dagoela islatzen du ebidentzia empirikoak. Horren oinarrian, ikusten da lortu nahi den helburura iristeko ilusio bat dagoela maila kognitibo eta emozionalean. Autoexijentzia horrek arrisku bat ekar dezake, elikadura-portaeraren nahasmenduetan ere faktore hori agertzen baita.

Ikasle horiek eskolako lehen urteetan (HH eta LH) maila kognitibo eta emozionalerako erronkarik ez izateak, eta ohiko emaitza gisa bikaintasuna lortzeak, pertsona horiek helduaroan perfekzionismoa bilatzea ekar dezake. Horren ondorioz, eta perfekzionismo patologikoaren prebentzioari dagokionez, emaitza akademiko egokiak izateagatik egokitzapen psikologiko egokia daraman ustekizuna saihestu behar da. Perfekzionista patologikoen lehen sintomak ezkutukoak izan ohi dira, eta, haien kanpoko jarrera arduratsua eta adeitsua izan ohi bada ere, laguntza eskatzeko zailtasunak izaten dituzte. Batzuetan, ageriko sintomak azaltzen dira, inguruko harridurarako: oso pisu txikia, autolesioak eta saiakera autolitikoak. Beraz, funtsezkoa da pertsona horien inguruko helduok entzute aktiboa izatea pertsona horiekin (Peterson, 2003), garapen afektiboa-

ren ezaugarriak sendotuz eta arreta berezia eskainiz. Ez dugu zentratu behar lorpen akademikoetan soilik, horrela pertsona horien lorpenei balio handiegia ematea saihestuko baitugu.

Beraz, hezkuntza-eremuan, eta baita familia-ingurunean ere, beharrezkoa dugu AGHko pertsonen ingurua estimulagarria izatea, eta, hartara, haiek txikitatik porrot txikien esperientzia bizitzea, haien mailarako erronkak proposatzea, frustraziorako eta egoerei aurre egiteko tolerantzia garatzen joan daitezen eta, horrela, haien akatsak ikasteko aukera bihur daitezen.

Ikerketa honen amaierara iritsita, asinkronia, sentiberatasuna eta baita perfekzionismoa ere modu eraikitzaile eta osasuntsuan bideratu daitezkeela ondorioztatzen da. Elidakura-arazoak izateko arriskua dute adimen-gaitasun handiko haurrek, baldin eta beren premiei erantzuteko prest ez dagoen testuinguru batean baldin badaude. Familiek laguntza behar dute behar espezifiko horiek ulertzeko eta behar horiei aurre egiteko. Horrez gain, hezkuntza-politikek detekzioan zentratzeaz gain, prestakuntzarako eta esku hartzeko baliabideetan ere zentratu behar dute.

Ondorioak

Beraz, honako testuinguru hauek izan behar dira genero-rolen ondorioz sortzen diren barne-gatazkak saihesteko: nerabeek kontzientzia hartzea eta genero-rolaren kontraesanei aurre egitea, eredu tradizionalak zalan-tzan jartzea, laguntzeko harremanak bilatzea, eta gatazkari irtenbidea aurkitzeko beren balioekin koherentek diren emakumezkoen ereduak bilatzea (Choate, 2005).

Horretarako, AGHko ikasleak detektatzea izango da gure helburua, eta, bereziki, emakumeak, orain arte hezkuntza-erantzun egokirik eman ez zaien horiek. Izan ere, horietan jarri behar dugu begia, azaleratzeko, ikusarazteko, hezkuntza-erantzun egoki bat emateko eta haien bidean bidelagun izateko, ulertuak senti daitezten, euren buruarengan autoestimuegoki bat izan dezaten, etorkizuneko psikopatologiak gara ez ditzaten, eta, funtsean, zoriontsu izan daitezten

haien bizitza pertsonalean eta profesionalean.

Gizarte honetan, bada ongi egiten ari ez garen zerbait, arrisku-faktore bihurtzen badugu hasiera batean potentzialitate zen hori. Bukatzeko, eta Hernangómezen (2020) hitzei buelta bat emanez, esan dezaket zorionez euskal hezkuntza-sisteman jada hasiak garela bidea egiten, eta egin dugula ibilbide bat non sentibilitateari, emozioei, konfiantzari, sormenari, esfortzuari eta ezinegon intelektual, artistiko, existenzial eta etikoei garrantzia ematen diegun. Jarrai dezagun bide horretatik, gizarte gisa asko baitaukagu irabazteko.

Bibliografia

- BARBERA, E. eta MAYOR, C. (1987). "Consideraciones sobre la motivación de logro y el autoconcepto de género". *Boletín de Psicología*.
- BELL, K., COULTHARD, H. eta WILDBUR, D. (2017). "Self Disgust within Eating Disordered Groups: Associations with Anxiety, Disgust Sensitivity and Sensory Processing". *European Eating Disorders Review*, 25, 373–380. <https://doi.org/10.1002/erv.2529>.
- BENITO, Y. (1990). *Problemática del niño superdotado*. Salamanca: Amarú Ediciones.
- CHOATE, L. H. (2005). "Toward a Theoretical Model of Women's Body Image Resilience". *Journal of Counseling & Development*, 83(3), 320–330. <https://doi.org/10.1002/j.1556-6678.2005.tb00350.x>.
- ETXEBARRIA, A., ARPIDE, X., BADIOLA, G. eta MARTINEZ, M. (2019). *Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko plana 2019-2022*. Euskal Autonomia Erkidegoa: Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntza Saila.
- HERNANGOMEZ CRIADO, L. (2020). "Altas Capacidades y Trastornos Alimentarios: ¿Vulnerabilidad o Protección?". *Revista de Psicoterapia*, 31(115), 77-95. <https://doi.org/10.33898/rdp.v31i115.357>.
- FOX, L. H. eta ZIMMERMAN N. W. (1985). "Las mujeres superdotadas". J. Freeman (Ed.). *Los niños superdotados. Aspectos psicológicos y pedagógicos*. Madrid. Santillana.
- HERNANGOMEZ CRIADO, L. (2018). "Apego y trastornos alimentarios: implicaciones para la intervención psicoterapéutica". *Revista de psicoterapia*, 29(111), 69-92. <https://doi.org/10.33898/rdp.v29i111.264>.
- LOPEZ, C., STAHL, D. eta TCHAN-TURIA, K. (2010). "Estimated Intelligence Quotient In Anorexia Nervosa: A Systematic Review And Meta-analysis Of The Literatura". *Annals of General Psychiatry*, 9(1), 40-50. <https://doi.org/10.1186/1744-859X-9-40>.
- LOVEJOY, M. (2001). "Disturbances in the Social Body: Differences in Body Image and Eating Problems among African American and White Women". *Gender & Society*, 15(2), 239–261. <https://doi.org/10.1177/089124301015002005>.
- MARTIN, L. T., BURNS, R. M. eta SCHONLAU, M. (2010). "Mental Disorders Among Gifted and Nongifted Youth: A Selected Review of the Epidemiologic Literature". *Gifted Child Quarterly*, 54(1) 31-41. <https://doi.org/10.1177/0016986209352684>.
- MARTINEZ URMENETA, I. eta OLLO OSCARIZ, C. (2009). *AGHk dituzten ikasleen hezkuntza premiak ebaluatzeako prozesua*. NHBBZ. Nafarroa: Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza Saila.
- MOON, S. M. eta DIXON, F. A. (2006). "Conceptions of Giftedness in Adolescence". F. A. Dixon eta S. M. Moon (Eds.), *The handbook of secondary gifted education* (pp. 7–33). Waco, TX: Prufrock Press.
- PETERSON, J. S. (2003). "An Argument for Proactive Attention to Affective Concerns of Gifted Adolescents". *Journal of Advanced Academics*, 14(2), 62-70. <https://doi.org/10.4219/jsg-2003-419>.
- Pfeiffer, S. I. (2009). "The Gifted: Clinical Challenges For Child Psychiatry". *Journal of the American Academy of Child & Adolescent Psychiatry*, 48, 787-790. doi:10.1097/CHI.0b013e3181aa039d.

AGHko ikasleak detektatzea izango da gure helburua, eta, bereziki, emakumeak, orain arte hezkuntza-erantzun egokirik eman ez zaien horiek.

GALDEIDAZU

ZERTARAKO BEHAR DUGU STEM HEZKUNTZA?

STEM akronimoa (Science, Technology, Engineering and Mathematics) gero eta adiera, eremu eta planteamendu zabalago eta askotarikoagoi lotuta ikusten dugu: STEM hezkuntza, STEM ezagutzak, STEM ereduak, STEM metodologiak, STEM proiektuak, STEM lanbideak, STEM balioak... Argi dago, beraz, konplexua den eta gero eta interes handiagoa duen esparru bati egiten diola erreferentzia.

Hori aintzat hartuta, artikulu honen helburua da HUHEZI Hezkuntza Fakultateko ZiTeO (Zientzia-Teknologia-Osasuna) ikertaldeak STEM hezkuntza zergatik behar dugun eta guk nola ulertzen dugun azaltzea eta diziplinarteko hezkuntza-ikuspegi horretan aritzeko gakoak aurkeztea.

Hasteko, STEM hezkuntzak Oinarriko Hezkuntzarako duen garrantzia azpimarratuko dugu. Zientzien, teknologiaren eta matematikaren ezagutza-arloen irakaskuntza eta ikaskuntza integratua eskatzen duen hezkuntza-ikuspegi honen jatorrian aspaldikoak diren oinarri pedagogikoak daude: ikasleak, talde-lanean eta euren intereseko ikaskuntza-prozesuen bidez, zientziaren eta teknologiaren ezagutza edota erabilera eskatzen duten erronkak eta arazoak ebazteko gaitzea. Planteamendua ez da berria, baina uler daiteke gaurkotasuna: teknologiak gero eta garrantzi handiagoa du gure gizartean, eta, digitalizazioa-



ren aroan sartu garelarik, ezinbestekoa da teknologiak gure gizartean eta gure bizitzan duen eraginarekiko pentsamendu kritikoa izatea eta hura erabiltzeko gaitzea. Horrez gain, gaur eta beti izango da garrantzitsua ikasleak kompetentzia zientifiko, teknologiko eta matematikoetan hezteko, herritar guztiak egunerokotasunean aritzeko, bizirauteko zein osasun-alarreko oinarriko behar eta arazoak

Aitziber SAROBE, Unai CARMONA, Nerea LOPEZ, Iker AZKUE, Eugenio ASTIGARRAGA, Itziar GARCIA, Haritz IRIBAS eta Patricia Arantzazu GONZALEZ

**ZiTeO ikerketa-taldea
HUHEZI fakultatea**



ebazteko; zientziaren, teknologiararen eta gizartearen arteko erlazio konplexuen kontzientzia izateko eta zientzia eta teknologia kultura garaikidearen elementu gisa identifikatzeko gai izateko. Ezagutzak, prozesuak eta balioak behar ditugu herritar gisa erabakiak hartu ahal izateko.

Teknologia digitala, ordea, ez da etorkizun hurbilean daukagun erronka bakarra, eta, ziurrenik, ezta erronka nagusia ere. 2019ko udan, EAEko lehendakariak Klima Larrialdi Egoeran gaudela aldarrikatu zuen, eta artikulu hau mundu mailako osasun-krisia eragin duen pandemiaren ondoriozko konfinamendu-egoeran idatzi da. Klima-aldaketa eta haren ondorioak, gutxiago edo gehiago, herrialde industrializatu guztietako gobernuen agendetan daude. Zientzialariek etorkizun hurbilean izango dugun errealitate gordina ikusarazi digute, eta eskolaren zeregina ere bada errealitate hori gelaraztea eta irtenbideak eraikitzeke heztea. NBEk 2015ean onartutako Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendak hamazazpi helburu planteatzen ditu; bide horretatik, UNESCO erakundea askotariko ekimenak bultzatzen ari da helburu horiek lortzeko eta, gai horiekin lotuta, herritarren hezkuntza garatzeko¹. Gure ustez ere, konpetentzia zientifikoak, teknologikoak eta matematikoak helburu horrekin landu behar dira, eta krisi ekologiko globalak (eta horren eragilea den klima-aldaketa) edota trantsizio sozio-ekologikoaren beharrak STEM proiektuak lantzeko funtsezko ardatzak izan behar dute.

Azkenik, gizartearen dagoen beste erronka nagusi bati erantzun beharko litzaioke STEM hezkuntzarekin: hain zuzen, ikasketa eta lanbide teknologikoetan nabaria den genero-desberdintasunari. Arrakala hori gainditu beharra dugu, ez STEM lanbideek profesionalak behar dituztelako, baizik eta, gure ikasleek eraikitzen duten identitatea edozein izanda ere, guztiek izan beharko lituzketelako aukera berdina nahi duten hori izan eta ikasteko, eta hori, tamalez, txikitatik hasten gara mugatzen. Ask

ikertu eta idatzi da gai horren inguruan azken urteetan, baina oraindik ere bide luzea dago egiteko. Ikerketek erakusten dute gazteak DBH etapan hasten direla, etorkizuneko lanbideak gogoan, horiei begirako ikasketak hautatzen. Prozesu horretan, berebiziko garrantzia dauka ezagutza-arloen eta horiei lotutako lanbideen estereotipatzeak. Eskolak ez ezik, familiak eta, oro har, gizarteak ere eragiten du erabaki horretan; baina argi dago ikasleek eskolan ikusten dituzten ereduak eta jasotzen dituzten mezuek eragina dutela euren ikasketen hautuan. Etorkizuneko lanbide asko eta asko sortu gabe daude egun, baina jakin badakigu horietako gehienak teknologia digitalen bilakaeraren baitan (ingeniaritzan, informatikan, bioteknologian...) garatuko direla. Lanbide horietarako ikasleak berdintasunean prestatzeko harago, ordea, etorkizun teknologiko horretarako hezi behar dira gazteak, eta, nondik abiatzen garen ikusita, horretarako ere, ikuspegi feminista eta inklusiboa arduraz landu behar dira hezkuntzan. Zientziak guztiongan zabaltzea eta teknologiarekiko irisgarritasuna eta teknologiararen erabilera kritikoa berdintasunean lantzea, horiek izan behar dute, besteak beste, STEM hezkuntzaren baldintzak.

Laburtuz, STEM hezkuntzaren indargunea gure gizarteak dituen erronka nagusiak gelarazteko eskaintzen duen aukeran dagoela uste dugu, diziplinarteko proiektuak baliatuz, garapen jasangarriari begirako arazo eta erronka esanguratsuak ebazteak ikaskuntza aktiboa eta kritikoa sustatzen duelako. Horrek garrantzi berezia hartzen du, kontuan izanda, herri honen bilakaera industrialak izaera propioa duela gure historian eta kulturean.

STEM proiektuen bidezko ikaskuntza eta irakaskuntza

Beraz, STEM hezkuntza bai, baina nola? Zer helburu didaktikorekin diseinatu behar dira eta nolako ezaugarri metodologikoak izan behar dituzte ikasteko eta irakasteko proze-

Eskoletako kultura-aldaketaz ari gara: STEM proiektuen izaera eta diseinua, proiektuak gelarazteko dinamikak edota modu horretan aritzeko ebaluazio-eredua partekatuko duten irakasle taldeak sortzeaz, edota ordutegiak eta espazioak moldatzeaz.

suek STEM hezkuntza bideratzeko? Noski, helburuen barnean erantzun beharreko galdera da hori, baina, gure aburuz, badira azpimarratu beharreko hainbat gako.

STEM proiektuek ikaskuntza aktiboa, pertsonalizatua eta lankidetzan oinarritutakoa sustatu beharko lukete. Proiektu horien abiapuntuan, garrantzitsua da ikasleen interesekoak diren arazoak eta erronkak identifikatzea. Ikasleen errealitatea eta eskola-curriculumua uztartzean dago gakoa. Heziberri 2020 dokumentuan oinarritzat definitu diren alfabetizazio zientifiko, teknologiko eta matematikoak hainbat ezagutza-arloen arteko diziplinartekotasunerako bideak erakusten ditu. Curriculum horrek ezagutza-arlo horiek etapa eta mailaka lantzeko ikasgaiak antolatzen ditu, baina ikasgai horiek diziplinartekotasunean landu daitezkeen hainbat ezagutza barnebiltzen dituzte, garapen jasangarriarako hezkuntza hartzen badugu ardatz.

Ingurumen Hezkuntzak bide luzea egin du noranzko horretan. Eskolako Agenda 21 ekimenaren barruan, edota tokian tokiko bestelako curriculum-proposamenetan, STEM ezagutza-arloen diziplinartekotasuna eskatzen duten gaitegi eta proiektu andana diseinatu eta gauzatu dira. Batxilergoko Mundu Garaikiderako Zientziak ikasgaiak ere alfabetizazio zientifiko eta teknologikoak egun ditugun ingurumen-arazo nagusiekin

¹ UNESCO (2017). *Educación para los Objetivos de Desarrollo Sostenible. Objetivos de Aprendizaje*. París: UNESCO. Hemendik jasota: <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000252423>

Irakasle taldean STEM eredu azaugarritzeak, STEM proiektuak diseinatzeak eta proiektu horietan oinarritutako ikasteko eta irakasteko prozesuak bizitzeak, ikasleen ikaskuntza-prozesua esanguratsuagoa egiteaz gain, arlo horietako irakaskuntza bera interesgarriagoa bihurtuko luke, diziplinarteko taldeetan lan egiteak erronka berrietarako prest egotea eskatzen duelako, etengabeko autoebaluazioan eta prestakuntzan oinarrituta.

uztartzeko aukera eskaintzen du. Beraz, STEM proiektuak lantzeko gaien aukeraketak ez luke arazo handia izan behar.

Proiektu horien diseinuetan ebazpen teknologikoa irudikatzea da ikuspegi didaktikotik aurki dezakegun erronka nagusietakoa. Horrekin lotuta, argitu beharko genuke teknologia ez dela soilik arduratzen ikasleek zentzu kritikoz arazoak ebatzeko hainbat gailu erabiltzeaz, edo gailurik aproposena hautatzeaz helburuaren arabera. Gailuen (digitalak edo ez) diseinua eta eraikuntza edota erremintzen erabilera ere bada teknologia. Eskola-curriculumak eskaintzen ditu horretarako aukerak, nahiz eta tokian tokiko baldintza materialak eta fisikoak mugatzaileak izan daitezkeen (Teknologia ikasgaiaren ordutegi murrizta, espazio eta material falta...). Mugak muga, digitalizazioaren garai honetan, ukaezina da teknologia digitala eta horren erabilera eraginkor eta arduratsua bidelagun ona izan daitekeela.

Bestalde, erronka eta arazoan ebazpena bideratutako STEM hezkuntzan, konpetentzia zientifi-

koaren lanketak hausnarketa sakona eskatzen du. Curriculumean, konpetentzia hori lantzeko, hainbat ikasgaitan banatuta jasotzen da ezagutza zientifikoa. Ezagutza horiek guztiak diziplinarteko proiektuetara ekartzeak hautuak egitea eskatzen du. Konpetentzia zientifikoa lantzeko zein eduki eta zergatik landu aukeratzea tentuz egin beharreko ahalegina da, eraikitako ezagutzaren transmisioa saihestuz, ezagutza zientifikoaren eraikuntzak bereak dituen indagazioa edota ikerketa gauzatu nahi badira. Galdera-erantzunak modu dialogikoan bideratuz, hipotesiak eraikitzea eta esperimintatzea eskatzen duten ikasteko eta irakasteko prozesuak diseinatzea eta gauzatzea erronka handia baita irakasleentzat.

Egun ohikoena den ebaluazio-ereduak ez du askorik laguntzen hezkuntza-eredu honen aldeko apustua egiteko. Izan ere, ez luke zentzurik taldean landutako STEM konpetentzien ebaluazio-tresna nagusiak ohikoak diren bakarkako probak (ezagutzak azaleratzeko bakarka erantzun beharreko azterketak) izatea. Hezkuntza-eredu honetan, ikasteko eta irakasteko prozesuaren jarraipenak berebiziko garrantzia hartzen du, erronka eta arazo esanguratsuek askotariko ebazpenak ahalbidetzen dituztelako, eta horien hautuak bukaerako ekoizpenak besteko garrantzia du ikasketa-prozesuan. Ebaluazio hezitzaileak, beraz, ikaste-prozesuan sortutako galderetan, abiapuntuko hipotesietan eta horiek frogatzeko egindako lanketan jarri behar du arreta, lortutako emaitzak modu kritikoa ebaluatzeko jarreran sakontzeko.

STEM hezkuntzaren erronkak eskolan


Honaino iritsi bazara, irakurle, honez kero buruan darabilzun galdera hauxe izango da, ziurrenik: hori guztia nola gauzatu liteke ebaluazio estandarizatuak eta ikasgaika banatutako ordutegi zurrinak ditugunean? Idaztea egitea baino errazagoa da, baina, gure esperientzian oinarrituta, hauxe da bidea: irakasleen arteko elkarlanak eragindako antolaketa-aldaketaren bidez. STEM proiektuak sortzeko, ezagutza-arlo horietako irakasle taldeak sortu behar dira. Tradizioz, irakasle

talde horiek Zientzien edota Zientzien eta Matematikaren mintegietan elkartu ohi dira fisikoki (Informatikako edota Teknologiakoekin batera). Beste urrats bat eman behar da, elkarrekin egon ez ezik, lankidetzan ere aritzeko. STEM hezkuntzan testu-guru formalean modu eraginkor eta jasangarrian aritzeko, ezinbestekoa da ezagutza-arlo horietako irakasleek ikasteko eta irakasteko prozesuak elkarrekin diseinatu eta gelaratzea. Alegia, STEM proiektu bidezko ikaskuntza izatea curriculum gaiztatutako metodologia nagusia, proiektu solteen bidez curriculum paraleloak eraikitzea saihestuz.

Eskoletako kultura-aldaketaz ari gara: STEM proiektuen izaera eta diseinua, proiektuak gelaratzeko dinamikak edota modu horretan aritzeko ebaluazio-eredua partekatuko duten irakasle taldeak sortzeaz, edota ordutegiak eta espazioak moldatzeaz. Ez da ikasturte batetik bestera egin daitekeen aldaketa, norberak egiten duenaz hausnartzeko eta besteekin partekatzeko moduak eta espazioak eskatzen dituen prozesua baita. Prozesu luzea eta gorabeheratsua, lankidetzara orok eskatzen duen bezala. Irakasleok, gainera, ez gaude modu honetarako autoerregulazio-prozesuak bizitzera ohituta, eta eskolen egituraketa historikoak eta erakunde horren funtzionamendurako inertiak oztopo handia dira aldaketarako bidean. Oinarritzeko Hezkuntzan hezkuntza-berrikuntzarako oso marko ahula izateak ere ez du laguntzen; batez ere, hezkuntza-sistematik ebaluazio-ereduari bere horretan eusteko egiten den ahaleginaren ondorioz.

STEM hezkuntzan ikusten dugu guk kultura-aldaketa horretarako aukera. Gure ustez, irakasle taldean STEM eredu azaugarritzeak, STEM proiektuak diseinatzeak eta proiektu horietan oinarritutako ikasteko eta irakasteko prozesuak bizitzeak, ikasleen ikaskuntza-prozesua esanguratsuagoa egiteaz gain, arlo horietako irakaskuntza bera interesgarriagoa bihurtuko luke, diziplinarteko taldeetan lan egiteak erronka berrietarako prest egotea eskatzen duelako, etengabeko autoebaluazioan eta prestakuntzan oinarrituta.


ARGITALPENAK



OLVIER BUTTON POXPOLIN BAT DA
Tomie De Paola

PAMIELA-KALANDRAKA


Oliver mutikoari natura eta irakurtzea gustatzen zaizkio, paperezko panpinekin jolastea eta dantzatzea. Ez da batere abila ariketa fisikorako, eta hori dela-eta, trufa egiten diote eta iraindu ere bai. Haatik, bere nahiak betetzeko irmotasuna eta besteen intolerantzia eta ulergaitzatsuna gainditzeko ahalegina adierazten ditu.



ELMERREN URTEBETETZEA
David McKee

EREIN


Elmerren abentura berri batekin dator Erein. Elefanteek erabaki dute beren txanda dutela Elmerri txantxa bat egiteko: animalia guztiek biharko haren urtebetetzea ahazten ahalegindu behar dute! Baina eguna iristean trikimailuak ez du funtzionatu erabaki bezala. Elefanteek Elmerren lagunak entzun izan balituzte...



PINTTO ETA HIP HOPA
Magali Le Huche

TARTALO


Pinttoren istorio hau irakurri bitartean, ikonoaren gainean zapaldu eta hip hop doinuak entzuteko aukera ematen du, guztira 16 doinu. Pinttok breakdance dantzariak aurkituko ditu Bronxeko espaloien gainean, eta haiekin batera hip hoparen unibertsoa ezagutuko du: rapa, scratcha, aho-perkusioak, grafitiak...



EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK
Askoren artean

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILA

Oinarri, jolas eta teknika hezitzaileak azpitulua daraman liburu honek euskal girotze barnetegietan egiten den lana ezagutzeko balio du. Euskararekiko harreman berri bat eskaintzen die haietara gerturazten diren ikasleei, eta horiek irakasle ooren eskuetan jarri dituzte, denen arteko elkarlana aberasteko.



ANIMALIEN INBENTARIOA
V. Aladjidi- E. Tchoukriel
Itzulpena: J. J. Petrirena - M. Taberna

PAMIELA-KALANDRAKA

Mundu osoko ehun bat espezie biltzen ditu haurrentzako liburu honek, hala ornodunak —ugaztunak, hegaztiak, arrainak, anfibiaok, narrastiak— nola ornogabeak. Animalia bakoitzaren izen zientifikoa nahiz arrunta ematen dira, eta haren deskribapena gehitzen da akuarelazko marrazki naturalistaren ondoan.



EMAKUMEAK TEKNOLOGIAREN HISTORIAN
Gontzal Avila

EREIN

Asko dira historian teknologiaren esparruari ekarpenak egin dizkieten emakumeak, baina gutxik lortu dute aitortza, beren asmakizunetatik eta lanetatik bizitzea eta gizartearen esker ona jasotzea. Gehienak ez dira aintzat hartuak izan. Liburu hau urrats bat da teknologiarekin zerikusia izan duten emakumeak nabarmentzeko.

PROPOSAMENA

Meatzaldea-Peñas Negras ekoetxea

Natura, gizakia eta meatze-industria gurutzatzen direnean

Meatzaldea-Peñas Negras ingurumen-erloto informazio eta sentsibilizaziorako ekipamendua da, eta Ortuellan dago, Bizkaiko Meatzaldearen bihotz-bihotzean. Gizakiaren eraginez natur-inguruneak izandako eraldaketa sakona hautemateko toki paregabea da. Biotopo babestua da eta balio historiko handiko gunea. Ekoetxea sareko zentroa da, Urdaibai, Txingudi eta Azpeitiako ingurumen-hezkuntzako zentroekin batera.



Meatzaldea-Peñas Negras ingurumen-zentroak ingurunea eta gizakiaren arteko harremanak aztertzeko abagune paregabea eskaintzen die haur, nerabe eta gazteei. Eusko Jaurlaritzaren Ihobe zerbitzuak kudeatzen duen Ekoetxea sarearen barruan, Ortuellan dago kokatua eta bere izena ondoan dituen harkaitzetatik hartu du. Natura aberatsaz gain balio historiko handia daukan ingurunea da Peñas Negra-sekoa, burdinaren meatze ustiaketa dela-eta eragin handia izan baitu

Bizkaiko Ezkerraldearen eta Euskal Herriaren bilakaera sozioekonomikoan.

Historiari dagokionez, Peñas Negras ingurunea kokatzen den Trianoko Mendiak erromatar garaitik ezagutzen dira, ugaria eta kalitate handikoa baitzen hango burdina. Duela gutxi, ikerketa arkeologikoei esker egiaztatu ahal izan da ingurune honetan erromatarrek egon zirela (K. o. III-IV. mendeko zeramika azaldu baita). Eta horrek zenbait historialarik esandakoa berresten du. Plinio

Zaharrak, esate baterako, Iberiako Penintsulako iparraldean "burdinazko mendi handi" bat zegoela esan zuen.

Plinio Zaharrak aurreratu bezala, ingurune honen protagonista nagusia burdina izan da. Mineral honek eragin erabakigarria izan zuen gure herrialdeko ekonomian, gizartean, ingurugiroan eta abarren, bereziki Ezkerraldean. XIX. mendearen erditik XIX. mende bukaera arte ingurune honetan kokatua zegoen mehategia munduko garrantzitsuena bilakatu zen burdina ugaria eta kalitate handikoa baitzen. Ustiapen handieneko aldia iraultza industrialaren gorakadarekin etorri zen, 1876-1930 urteen artean.

Mineralaren ustiaketa handiak langile asko erakarri zituen eskualdera, Euskal Herriko beste zenbait eremutatik, baina baita Gaztelatik, Galiziatik edota Aragoitik ere. Horrela, langile horiei guztiei eta haiekin etorri ziren senideei bizilekua emateko, meatze-auzo ugari sortu ziren; esate baterako, La Arboleda auzunea, 1877an. Han barrakoietan pilaturik bizi ziren langileak eta euren familiak, eta bizi eta lan baldintza kaskarrek hilkortasun tasa handia eragin zuten. Baldintza gogor haiei aurre egiteko langileak euren eskubideen defentsarako elkartu egin ziren. Ondorioz, eskualde hori langile mugimenduek izan zuten garapenagatik ere garrantzitsu bilakatu zen.

Meatzeak gizarte-gaietan bezala, ingurune naturalean ere eragin zuzena izan zuen, mendialdea oso endekatua utzi baitzuen mineralaren ustiapenak, landareak eta animaliak desagerrarazi


zituen eta zuloz eta zabortegiz beteriko paisaia sortu zuen. Hain justu, aurreko mendeko 40ko hamarkadaz geroztik, meatze-jarduerak izandako beherakadak ekarri zuen natura-gu-nearen errekupezioa.

Ingurumenaren berreskurapenean espezializaturiko zentroa

Meatze ingurunea toki ezin hobea da naturaren eta gizakiaren arteko harremanak aztertzeko, eta horixe izan zen, hain zuzen ere, Peñas Negraseko ingurugiro interpretazio-zentro hau sortzeko abiapuntua.

Eraikinak informazio-bulego bat eta bi erakusketa-gela ditu, horietan meatzeen eta horien eraginaren historia erreparatzen dira. Kanpoko museoan, berriz, meatze-industrian erabilitako hainbat pieza ikus daitezke. Horrez gain, bertako espezieez osaturiko lorategi eder bat bisita daiteke kanpoaldean eta terraza-behatoki bat ere badu.

Ingurumenaren berreskurapenean espezializaturiko eta konprometituriko zentroa da, eta arreta berezia jartzen du hezkuntzan. Horretarako ikasturtean zehar didaktika eta ingurumena uztartzen dituzten jarduerak eskaintzen ditu. Alde batetik, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleentzat pentsaturiko bisita gidatuak eta jarduerak eskaintzen dituzte. Eta, bestetik, Lehen Hezkuntzako 3. ziklorako ere programa didaktiko mamitsua daukate prestatua. Jardueren barruan, erakusketak ikusteaz gain, ikasleek bisita gidatu bat egiten dute meatze-arroan zehar eta paisaia tailerrak egiteko aukera dute.



Meatzaldea-Peñas Negras ekoetxea

La Arboleta errepidea, Muskiz km 1-6
48530 Ortuella (Bizkaia)
Telefonoa: 946 33 80 97
info.penasnegras@ekoetxea.eus
www.ekoetxea.eus

BALIABIDEAK

- Langile espezializatuak. Ibilbide gidatuak egiteko eta publikoaren premiei erantzuteko.
- Erakusketa eta ikus-entzunezkoa. Burdina ingurune baliabide bezala, Bizkaiko meatze arroaren historia, biztanle guñeak, geomorfologia, flora eta fauna, ingurumen interpretazioa.
- Jolastokia eta terraza panoramikoak.
- Kanpoko museoak. Antzinako meatze ustiapenen elementu zaharberriak.
- Landaretza autoktonoaren berreskuratzea. Dokumentazio zentroa.
- Ikastetxeentzako material didaktikoak. Ikasleentzako lan koadernoak eta irakasleentzako gidaliburuak.
- Argitalpenak. Eskuorriak, ingurugiro interpretaziorako koadernoak, mapa eta liburuak.
- Ikus-entzunezko materialak

PROGRAMA DIDAKTIKOAK

Helburuak:

- Paisaiaren interpretazioaren bidez, meatze ustiapenaren alderdi adierazgarrienak zein diren jakitea.
- Errespetu jarrerak garatzea, ingurumenaren ezagueraren bidez.
- Antzinako meatze ustiapenaren landaretza eta fauna ezagutzea.
- Gaur egun eremu hau aisialdirako eta denbora liberako erabiltzen da.
- Meataritzak paisaian utzitako aztarnak interpretatzea, baita meataritzaren ingurumen ondorioak ere.
- Inguruaren ezaugarri geologiko nagusiak zein diren jakitea: harriak, burdin mineralak, etab.

Jarduerak

- Ibilbide didaktikoak: La Arboledako antzinako meatze ustiapenean zehar
- La Arboleda: biztanle guñe garrantzitsu honetara bisita.
- Paisaia karstikoa: kareharrizko egitura bitxi honetara bisita eta handik ere ikuspegi panoramiko politak daude.



ATZEKO ATETIK



NIRE IKASTOLA

ARETZ INIGUIZ ERRUGBILARIA

Nire bizitzako 16 urte pasa ditut ikastolan. Bi urterekin hasi eta hemezortzirekin bukatu. Dena Hendaiako ikastolan hasi zen 1985ean. Oroitzapen oso ona dut Goiarako ikastola zaharrean. Nire adineko hamar bat lagun ginen gelan. Lekua zaharra zen, baina guretzako oso ederra. Futbol-zelai bat geneukan eta inguruan baso ttiki bat ere bai, eta txabolak egiten genituen. Gogoratzen naizen gauza handiena da denbora asko pasatzen genuela haur guziak elkarrekin jolasten. Ama Eskolan eta Lehen Mailan Hendaiaren pasa nituen zortzi urte. Gogoratzen naiz ere Herri Urrats garaian Hendaiako ikastolaren ostatuan pasatzen genituela eguna gurasoak laguntzen, momentu goxoak.

Gero kolegiara joan ginen gela guzia, Kanbora. Hiru gelatan zati-tuak ginen, baina jolas momentuan elkartzen ginen. Bi oroitzapen handi ditut han. Lehena leku handia zela eta pilotan aritzen ginela denbo-

ra guzian aterbean. Bigarrena eta handiena, egunero autobusean ordu bat pasatzen genuela joateko eta itzultzeko. Beraz, denbora ainitz pasa genuen autobus hartan adin guziko ikasleok elkarrekin. Gauza asko pasatzen ziren autobus hartan. Etxerako lanak ere bukatzen genituen bertan eta, kasu garai hartako bidea ez zela arunt zuzena eta gure idazketetan ikusten zela. Lau urte oso onak izanzen ziren. Urtero ateraldi bat ere egiten genuen eta beste herriko ikastola batzuekin trukaketak ere egiten genituen.

Kolegioa ere leku ederra zen, zeren eta Ipar Euskal Herriko bakarra zen orduan eta ikasleak leku guzietatik zetozen. Kostaldea eta barnekaldea leku berean. Aberastasun handia izan da denentzat.

Ondoren lizeoa Baionan egin nuen Etxepare lizeoan. Ehun bat ikasle bakarrik ginen, beraz, ikasteko kopuru oso ona. Erakasleak ere gehienak kolegioan ezagutuak, beraz aldaketa gutxi. Hor ere ordu bat egiten genuen

autobusez. Bizi momentu handi bat pasa dugu auto-busean. Gogoratzen naizen gauza bat zera da: batzuetan autobusak huts egin izan zidala. Garai hartan ez genuen telefono mugikorrik, beraz, ez genekien autobusa pasa zen edo ez. Orduan, batzuetan korrika joaten nintzen geltokira tren hartzera, eta gero geltokitik oinez lizeora. Amak ez zuen nahi ikastolan huts egiterik, beraz, ez nuen askotan autobusa huts egin.

Nire ikastola garaiko oroitzapen oso ona dut. Momentu zailak izan dira, baina erraz ahanzten dira. Garai hartan ikastolak ttikiak ziren eta ikasleen eta erakasleen arteko harremana oso ona eta sinplea zen. Neretzako hori da garrantzitsuena. Ikastolak bere lekua egunero babestu behar zuen, beraz, gure artean elkartasun handia bazen. Denok bagenuen euskararen alde zerbait egiteko eta nik uste euskarari leku gehiago eman diogula. Gaur egun lau kolegio dira eta euskarak leku handiagoa du.

Hori izan da nire ikastola.

Jaso urtean lau zenbaki,
20 €-ren truke

Hazi Hezi

haziera eta heziketa
aldizkaria



Hazi Hezi eta **hik hasi**
familia eta eskola
heziketari garrantzia ematen diogunon komunitatea

Harpidetzak:

hikhasi@hikhasi.eus • 943 37 14 08 • www.hikhasi.eus

0-6 etapako hezitzaileentzako aditu titulua zaintzan eta pedagogia eraldatzaileetan espezialista

Zaintzaren garrantzia

Emmi Piklerrek haurren autonomiaren, zaintzaren eta mugimenduaren ikerketan egindako ekarpena funtsezkoa izango da ikastaro honetan.

Landuko diren gaiak eta balioak:

- Zaintza-uneak: loa, jatorduak, pardel aldaketa...
- Haurren mugimendu autonomia.
- Sozializazio baketsua.
- Hazkuntzari buruzko paradigmak.
- Formazio pertsonala.
- ...




Pedagogia eraldatzaileak

Haurra erdigunean jartzen duten pedagogia berritzaileek tresnak emango dizkiete 0-6 urte bitarteko haurren hezitzaileei ume bakoitzaren nortasunaren eraikuntzan laguntzeko.

Honako autore hauek landuko dira, gaian espezialista diren adituekin:

- Loris Malaguzzi eta Reggio Emiliako eskolak.
- Maria Montessori.
- Mauricio eta Rebeca Wild.
- Rudolf Steiner eta Waldorf pedagogia.
- ...



Alvaro Beñaran, formazio pertsonaleko arduraduna

“Haurra zaintzea bere gaitasunetara egokitzea da, horiek errespetatzea”



Kristina Goñi, 2. ikasturteko koordinatzaile pedagogikoa

“Haurtzaroa harribitxi bat da, ongi zaindu, maitatu eta errespetatu behar dena, hezkuntzako oinarria da. Garrantzitsua da haurren bidelagunak izango garenak ondo formatuak egotea, haurrek hoberena merezi dutelako. Hezitzaile prestatu eta formatua haurrentzako operari onena da”